

AIARALDEA *hemen*



SAYDI LUBANZADIO:
Will Smithekin dantzatzen aritu ostean, ortzimuga berrietara begira jarri da audioarra 20-21 or.

WALTER EGO:
“Eguneroko arazoetatik aldentzeko ihesbide gisa hasi ginen batzen” 24 or.



“Jendeak bozkatu nauelako heldu naiz honaino, eta neurria ematea espero dut”



AIARALDEA 2
Sinadura bilketa “osasun sistema publiko eta duinaren alde”
Hainbat aldarri helarazi nahi dizkiote Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailari

AIARALDEA 2
Iñigo Pinedo Vadillo da Aiarako Kuadrillako presidente berria
Kuadrillaren irudi-marka berria ere aurkeztu dute, “Paisaia da helmuga” lemapean

LAUDIO 4
Zergak igo dizkiete Laudioko etxebizitza hutsei
Ondare Higiezinaren gaineko Zergan %50ko errenergua ezarri die Udalak

KULTURA 19
Zinemaldian estreinatu dute Azken Erromantikoak filma
Laudiok ez du horrenbesteko protagonismoa hartzen pelikulan

KULTURA 22
Sormen beka eta egonaldiak esleitu ditu Kultur Faktoriak
Eskualdeko eta Euskal Herriko hainbat sortzaile arituko dira euren proiektuak mamitzen

KIROLA 26-27
Agur esan die Koldo Iriartek frontoiei, hiru hamarkadaren ostean
Irailaren 28an jokatu zuen azken partida bere herriko pilotalekuan

Zumalakarregi 3, Laudio
www.lacasaderesa.com
94 672 04 93

HAURRAREN LOTERIAN
1. SARIA
2024

EZ GERATU DEZIMO GABE

herriz herri

Aiaraldea

Sinadura bilketa abiatu dute “osasan sistema publiko eta duina” eskatzeko



Astehenean egin zuten ekimena iragartzeko agerraldia Urduñako Kotsultategian. Aiaraldea.eus

Testua
Txabi Alvarado Bañares

Sinadura bilketa abiatuko dute Aiaraldea osoan osasan sistema “publiko eta duina” aldarrikatzeko. Hori azaltzeko agerraldia egin zuten astehenean, Aiaraldeko hainbat herritako bizilagunak bildu ziren bertan, Osakidetzan dagoen arazoa eskualde osoan pairatzen dela azpimarratzeko.

Salatu dutenez, azken urteetan “murrizten eta ahultzen” joan dira Aiaraldeko Osakidetza Erakunde Sanitario Integratuko balibideak, “eta ez soilik opor sasoietan”.

Bi arazo zehatzetan jarri dute begirada. Alde batetik, azaldu dute azken urteetan “erabat normalizatu” dela “Laudioko zein Amurrioko Etengabeko Arreta Guneetan medikurik gabe jardutea”. Bestetik, anbulantziatan ere medikuak falta izan direla nabarmendu dute. “Ikusi dugubaita ere, behin baino gehiagotan, gure eskualdeari zerbitzua eman behar zion anbulantzia medikalizatua mediku gabe egon dela, eta Barrualde-Galdakaoko beste anbulantzia medikalizatua ere egon dela medikurik gabe. Kasu horietan, Erakunde Sanitario Integratu guztia geratu da larrialdietara-

ko zerbitzu egokirik gabe”, ohartarazi dute.

Horri lotuta, gogora ekarri dute Laudion aurten bi pertsona hil direla testuinguru horretan: “Agian, osasan zerbitzuak ehuneko ehunetan egonda ere gertatuko lirateke ezbehar horiek, baina osasan zerbitzuek uneoro egon behar dute ehuneko ehunetan; eta larrialdietarako prestatuak dauden zerbitzuek garaz eta behar den dotazioarekin artatu behar dituzte larrialdiak. Ezin dute zalantzarik eragin, eta triste da pentsatzea ea zer gertatuko litzaitekeen egoera beste bat izango balitz”.

Baina mediku gabeziatik harago doa arazoa, agerraldian salatu dutenez. “Eskualdeko gainontzeko herrietan ere” pairatu dute “Lehen Mailako arretak izandako gainbehera”, eta osasan publikoaren beste esparru batzuetan ere nabaritu da, “Buru Osasunerako Zentroko zerbitzuan, kasu”.

Lau aldarri zehatz

Prentsaurrekoan azaldu zutenenez, orain arte ez da “neurri zuzentzailerik” hartu eta “geroz eta ahalagoa” da Aiaraldeko egoera “Osakidetza baliabideei dagokienez”. Gauzak hala, lau aldarri zehatz pla-

zaratu dituzte. Lehena, Audio eta Amurrioko Etengabeko Arreta Guneetako “ordutegi eta txanda guztietan” berrmatzea beharrezkoak diren espezialitate eta kategoria guztietako osasan profesionalak, “baita medikuak ere”. Gauza bera eskatu dute baita eskualdean dauden Osakidetza gainontzeko azpiegiturei begira. Bigarrena, Audioko anbulantzia medikalizatuko txanda guztietan egotea “beharrezkoak diren osasan profesional guztiak”, medikuak barne. Hirugarrena, Osakidetza oinarriko asistentzia-zerbitzua ziurtatzea. Eta laugarrena, Buru Osasunerako Zentroko itxaron zerrendak murriztea, “kalitatezko arreta” berrmatzeko.

Sinadura bilketara batzeko deia

Ekimenaren sustatzaileek nabarmendu dute asko dela “jokoan dagoena”, eta “jende ororen inplikazioa” behar dela osasan sistema publiko eta duinarean aldeko borrokan. Gauzak hala, sinadura bilketan aktiboki parte hartzeko deia luzatu diete bizilagun guztiei. Horretarako, posta elektronikoko bat jarri dute interesdunen eskura: aiaraldeko@rehabatzaordea@gmail.com. “Animatu laguntzera sinadurak jasoz zure lantoki, eskola, herri edo auzoan”.

Iñigo Pinedo da Aiarako Kuadrillako presidente berria

Testua
Aitor Aspuru Saez

Iñigo Pinedo Vadillok hartu du Encina Castresana Astarloaren lekukoa Aiarako Presidente moduan. EAJ-PNVko batzarkideen 13 botoek eta PSE-EEren 2 botoek osatzen duten gehiengoari esker izendatu dute erakundeko buru berria.

“Ilusio eta gogo handiz hartzen dut ardura hau, eta Aiarako eskualdeko bizilagun guztien onerako nire onena emateko konpromiso sendoarekin. Ohore bat da gure lurraldeko bizi-kalitatea hobetzeko lan egiteko aukera izatea”, adierazi du Pinedok.

EAJk azaldu duenaren arabera, sistema informatiko eta teknikoari gisa duen esperientzia profesionalaz gain, Iñigo Pinedok 25 urtez “erantzukizuneko hainbat kargu bete ditu Aiarako Udalean”. Bertan, gobernu-taldeko kide izan da azken legegintzaldietan, eta, gaur egun, zinegotzia da EAJ-PNVko udal-taldean.



Iñigo Pinedo Vadillo. EAJ

Aiarako Kuadrillako batzarkide ere bada duela 15 urtetik, eta hainbat batzordetan parte hartzen du, hala nola ogasunekoan, non agintaldi honetan lehendakari lanak egin dituen.

Duela egun batzuk EAJk adierazi zuen Encina Castresanak Aiarako Kuadrillaren presidentetzari uko egin ziola bost urte eta gero, “arrazoi pertsonal eta politikoengatik”.

Marka berria

Presidentetzaz gain, Aiarako Kuadrillak marka berria ere estreinatuko du, “Helmuga paisaia da” lemarekin.

Lan esparruan jarriko du begirada Asasamek aurtengo Buru Osasunaren Munduko Egunean

Testua
Oihane Ozaeta Fernandez

Urriaren 10ean ospatuko den Buru Osasunaren Munduko Egunean harira, Asasamek hainbat jardura antolatuko ditu hilabete zehar. Aurten, laneko osasan mentalean jarriko dute arreta, buru osasuneko arazoak dituzten pertsonen kalitatezko lana izateko duten eskubidea aldarrikatzeko.


“Lana eta buru osasuna, funtsezko lotura” leloaren bidez, aldarrikapen bikoitza islatu nahi dute. Batetik, lan duina ikusaraztea eta aldarrikatzea, pertsonen buru osasunari lotutako faktore gisa. Bestetik, lana eskubideen ikuspegitik eraiki behar dela, eta baldintza prekarioeta-

tik eta diskriminaziotik aldentu. Izan ere, egoera horiek, sufrimendua sortzeaz gain, buru osasun arazo askoren sorburu dira, eta kolektibo kalteberei eragiten diete bereziki.

Esan bezala, hainbat jardura egingo dituzte Asasameko kideek urrian zehar. Baina, horrez gain, Gazteekin programa pilotua jarri dute abian Asasameko kideek, Aiaraldeko gazteen ongizate psikologikoa erraztea helburu duena. Izan ere, gazteen baja-kopurua %90 baino gehiago handitu da pandemiaren geroztik, eta hazi egin da Asasamek gazteei eskaintzen dien arreta. Horregatik erabaki du elkarteak biztanleriaren sektore horretara bideratutako egitasmoa sortzea.

Amurrio

Mendiko Eskolan estalki berri bat jartzeko proiektua, Arabako Aurrekontu Parte-hartzaileetara



Mendiko Eskolako patioan jarriko lukete estalkia. Mendiko Eskola

Testua
Txabi Alvarado Bañares

Mendiko Eskolako patioan estalki bat eraikitzeke proiektua eraman dute Arabako Aurrekontu Parte-hartzaileetara. Araban erroldatutako aiaraldeen azaroren 8ra arte izango da egitasmo horren aldeko botoa emateko aukera. Bi bide izango dituzte horretarako: udal-txera jotzea edo Arabako Foru Aldundiaren webgunean sartzea, ziurtagiri elektronikoa baliatuta.

Udalak nabarmendu du estal-

kiaren egitasmoa ez dela onuragarria izango eskolako komunitatearentzat soilik, "herri osorako eremu multifuntzional eta irisgarri bat sortzea" delako helburua, hainbat motatako jardueren atarpe izateko balioko lukeena: kontzertuak, ikuskizunak, merkatuak edota herri bazkariak, besteak beste.

Aurreratu dutenez, azpiegitura "gardena" izango litzateke, eta 2alboetatik irekita" egongo litzateke. "Diseinu irekiak aireztapen egoki bermatuko du, ingurunea-

rekiko lotura bisuala mantenduz eta hainbat jarduera egiteko espazio atsegina sortuz". Horrez gain, Udalak uste espazio horu "gune aproposa" izango litzatekeela Oporretan Euskaraz bezalako ekitaldietarako, haurrei "eguzkitik eta euritik babestutako leku bat" eskainiko liekeelako, "euren esperientzia eta segurtasuna hobetuz".

Horregatik guztiagatik, herritar guztiei luzatu die Udalak egitasmoaren alde botoa emateko gonbita.

Amurrioko gazte kirolariak apustuekiko duten menpekotasuna ikertuko du Udalak

Testua
Txabi Alvarado Bañares

Ikerketa bat abiatuko du Amurrioko Udaleko Gizarte Ekintza eta Osasun Sailak udalerriko gazteen artean ludopatia sintomak detektatzeko. Zehazki, kirolean aritzen diren gazteek kirol-apustuekin duten harremanazango dute aztergai, eta kirol elkarrekin elkarlanean arituko dira horretarako.

Programa bat garatuko du tokiko erakundeak, "kirol-apustuen erabilera desegokiaren ondoriozko arazoak ikertzeko, kontzientziatzeko eta murrizteko, bai eta mendekotasun horretatik edo beste batzuetatik babesteko tresnak garatzeko ere".

Udalak nabarmendu du geroz eta jende gazteagoak egiten dituela apustuak. "Adingabeen %20k baino gehiagok ezagutzen eta egin dituzte apustuak noizbait", ohartarazi dute, eta nabarmendu dute arriskuak "esponentzialki areagotzen" direla online inguruetan.

Horri lotuta, Udalak nabarmendu du ludopatiaren kasuan kirola egitea "arisku-faktore" bilakatu daitekeela, jokalariek "kontrol-sentsazioa" dutelako eta bide asko dituztelako apustuak egiteko, "irabaztea erraza iruditzen baitzaie".

Behin datuak bilduta, hainbat tailer eskainiko ditu Udalak, "kontzientziazioan eta murrizketan lan egiten jarraitzeko".

ARTE HARTZE
ZIKLOA 2024
SORMENA BILUZTUZ

KULTUR-FAKTORIA

Urriak 13, igandea · 18:00 · Faktorian

BAZKIDEEK 8€ | EZ-BAZKIDEEK 10€ | LANGABEEK/IKASLEEK 5€



EUKALYPTUS

JON ANDER URRESTI,
BEÑAT URRUTIA ETA
MATXALEN DE PEDRO
Hitzaldi performatiboa

LOA, LOA LAGUNA

MAIDER LASA SANTAMARIA
Kontzertu performatiboa



ERROTARI KALEA 4-8 LAUDIO (ARABA) · WWW.KULTURFAKTORIA.EUS
633 51 73 83 · KULTURA@AIARALDEA.EUS



BONOAK ETA
SARRERAK
SALGAI
www.faktoria.eus

LAGUNTZAILEAK




BABESLEA

araba álava
foru aldundia diputación foral

TREBIÑU
sagardotegia

Txotx!

Zatoz eta dastatu gure sagardotegia eta dastatze menuak!



945 24 48 52 / 657 73 65 99 www.trebinu.com @trebinu_sagardotegia

herriz herri

Laudio

Laudion hutsik dauden 660 etxebizitzak jabeek %50eko errekarua ordaindu beharko dute Ondare Higiezin Zergan



Pertsonarik erroldatuta ez duten etxebizitzak igo diete Ondare Higiezin Zerga. Aiaraldea.eus

Testua
Aitor Aspuru Saez

Laudioko Udalak adierazi du udalerriko 660 etxebizitza hutsen jabeek %50eko errekarua ordaindu beharko dutela Ondare Higiezin Zergan. Tokiko erakundeak errekarua hori ezarri die higiezin horiei guztiei, ohiko bizilagunak ez dutelako. Modu horretan, erabilerririk ez duten etxeak alokairuko merkatura eraman nahi ditu EH Bilduren gobernu taldeak.

Berez, ondare horien jabeek urriaren 24ra arte izango dute alegazioak aurkezteko epea. Iñigo Martínez Cerrillo zinegotziak adierazi duenez, "etxebizitza horien jabeek jakinarazpen bat bidaliko zaie beren etxeetara, kobrantzaz ohar-tarazteko. Nolanahi ere, eta ordainagiria igorri ondoren, alegazioak aurkezteko epe berri bat ezarriko da".

Gobernu taldeak gogoratu du ia 42.000 eurorainoko errentetarako hoberi-taulak handitu zituela, eta neurri berahartuzuela alokairu publikoko programa baten barruan (Alokabide) dauden etxebizitzak hutsitarako, trantsizio ekosoziala bizi-kortzea helburu duten etxebizitzetarako, eta, bereziki, energia kontsumoa murrizten dutenentzako. Halaber, tokiko erakundeak azpimarratu du alokairurako progra-

EAJ eta PPren kritikak piztu ditu neurriak. Jeltzaleek uste dute EH Bilduren udal gobernu taldearen neurriak jabetza pribatua estigmatizatzen duela

ma publikoetan ez dauden etxebizitza hutsei ezarri zieten errekarua.

Opozisioaren kritikak

EAJ ez dago ados Udalak hartutako erabakiarekin. Izan ere, Arabako Lurralde Historikoko Aldizkari Ofizialean etxebizitzak kokatuta dauden kaleak eta atariak argitaratu dituzte Laudioko Udalaren aginduarekin batera eta horrek, jeltzaleen aburuz, "etxebizitza horien jabeen pribatutasuna urratzeaz gain, mesfidantza- eta kezka-sentsazio kezagarria ere sortzen du".

Honako hau adierazi dute jeltzaleek: "Hainbat kexa jaso ditugu ekimen horren ondorioz, ulertu ezin dutela eta gaizki tratatuta sentitu direla dioten bizilagunengandik, segurtasun-gabeziak eta urduritasuneko giroa sortzen duelako". Hori dela eta, jeltzaleek uste dute neurriak jabetza pribatua estigmatizatzen duela.

PP ere batu da neurriaren aurkako kritiketara. Alderdi popularraren aburuz, etxebizitza huts horien jabeak herri txikietan bizi diren biztanleak dira eta bigarren etxebizitza erosi dute euren bizitokitan eskura ez dituzten zenbait zerbitzu publiko irisgarriago izateko. PPren iritziz, OHZren errekaruak herritar horiek zigortzen ditu eta beste udalerririk batzuetara joatea eragingo du.

Greba Feminista Orokorreko isunak ordaintzeko ekarpen ekonomikoa egin dute Imegarreko langileek



Urte hasieran egin zuten greba Imegarreko langileek. Aiaraldea.eus

Testua
Txabi Alvarado Bañares

Imegarreko langileek hainbat dohaintza jaso zituzten herritarren partetik urtearen hasieran, bi ordezkari sindikalen kaleratzea dela eta abiatutako grebari aurre egiteko. Orain, Laudioko lantegiko beharginek erabaki dute borroka horretatik soberan geratutako diru guztia Greba Feminista Orokorreko isunak ordaintzera bideratzea.

Gauzak hala, mugimendu feministako kideei egin diete ekarpen ekonomikoa, Ertzaintzak 6 emakumeri ezarritako 2.500 euroko isuna ordaintzen laguntzeko. Tubacexen aurrean eginiko pike-teagatik jarri zituen poliziak isun gehienak, "Mozal legea" baliatuta.

Aiaraldeko Greba Batzordeak Imegarreko langileek eginiko ekarpena goraiatu du jazarpenari "klase elkartasunez" erantzuteko balio izan duela nabarmenduta.

Jose Arrue kalera mugitu dute Gurutze Gorriaren egoitza



Jose Arrue kaleko 8. zenbakira mugitu dute Gurutze Gorriaren egoitza. Aiaraldea.eus

Testua
Oihane Ozaeta Fernandez

Jose Arrue kaleko 8. zenbakira mugitu da Laudioko Gurutze Gorriaren egoitza. Arreta ordutegia honako hau izango da: astelehene-tik ostiralera, 10:00etatik 14:00etara, eta asteazken eta ostegun arra-

tsaldeetan, 16:00etatik 18:30etara. Lokal berria 93 metro karratu erabilgarriko beheko solairua da. Espazio berri horrekin, irisgarritasuna hobetzea espero du erakundeak.

Laudioko Gurutze Gorriak 460 bazkide eta 87 boluntario ditugaur egun.

Laudio

Emakume* Abertzaleen X. Topaketa egingo dute azaroaren 16an Laudion

Testua
Oihane Ozaeta Fernandez

Euskal Herriko Bilgune Feministak Emakume* Abertzaleen X. Topaketa antolatu du azaroaren 16rako, Laudion. Izen emateko aukera zabalik egongo da azaroaren 6ra arte.

Bi urtean behin antolatzen dituzte topaketa horiek Euskal Herriko Bilgune Feministako kide eta sare-

kideek. "Euskal Herrian eta munduan ditugun erronka konplexuei galderak eta erantzun posibleak bilatzeko elkartzen gara: aurreko urteetan, estrategiaren berritze gisa ulertu izan ditugu edota gai konkretu batzuetan sakontzeko aitzakia gisa. Aurtun, ariketa kolektibo bat zabaltzeko eta ilusioa piztu zein ardura zabaltzeko saiakeran murgilduko gara azaroaren 16an, Laudion", azaldu dute.

Aiara

L-15 eta L-16 lineetako autobusak Luiaiondon sartu eta geldialdiak egin ditzatela eskatu du Aiarako Udalak

Testua **Oihane Ozaeta Fernandez**

Aiarako Udalak L-15 eta L-16 lineetako autobusak Luiaiondo paretik pasatzen direnean, Luiaiondon sartu eta geldialdiak egiteko eskatu du.

Udalak ohar bidez zabaldu duenaren arabera, Luiaiondok gutxi gorabehera 1.300 biztanle ditu gaur egun. Lezama eta Larrinbe auzoak 240 biztanle dituzte eta L-15 lineak honek bertatik igarotzen diren autobus guztien joan-etorriko geltoki guztiak egiten ditu, eskatu beharrik izan gabe. Gainera, "L-15 linearako emandako ordutegietan oinarrituta, Luiaiondo herrian sartuz gero bi minutu gehiago beharko zuen autobusak bidaiatu egiteko". Halaber, "autobusak Luiaiondo herrira sartuta egiten duen distantzia, inguratzen duen errepidetik igaro beharrean, kilometro berberak dira".

Aurreko batean Udalak Arabako Foru Aldundiari eskari hori egin zionean, erantzuna izan zen bertan trena bazegoela. "Tren geltokia herritik urrun dago eta auzoaren arabera, 1,5km egitera ailega daiteke", kexu da Udala, eta gaineratu du "Laudiotik eta Amurriok badutela trena baina horrek ez duela eragozten autobus zerbitzua izateari". Udalaren hitzetan, Luiaiondo da autobus

zerbitzu hori, L-15, duen Aiarako herri bakarra.

Bestalde, Okondotik Artziniegara doan L-16 lineari dagokionez, ez du geldialdirik egiten Luiaiondon. "Horrela, Luiaiondo isolaturik geratzen da Aiarako gainontzeko herrietatik, autobus zerbitzuari dagokionez", azaldu dute. Gainera, Laudiotik Gasteizera paretik pasatzen diren 21 autobusetatik 6 soilik sartzen dira Luiaiondon.

Udalaren aldetik, hortaz, Luiaiondotik igarotzen diren L-15 eta L-16 lineetako autobus guztiak herrian sartzea eta horretarako prestatutako bi geralekuetan gutxienez gelditzea eskatu dute.

Urduña

Urduñako kultura aniztasuna atera dute plazara

Urduñako Foru plaza hirian elkarbizi diren herri anitzen erakusleho bilakatu zen larunbatean, kultura bakoitzeko gastronomiaren, musikaren edota dantzen laginekin.



Zure egunerokoaren parte gara

CuadraBus

URKINA CENTRAL: Pleguez Zuzendaritza, 01070 Amurrio, Álava www.cuadribus.com

T. 945 890 804 info@cuadribus.com

CuadraBus

selene
fruitadenda

DOAKO ETXEZ ETXeko ZERBITZUA: URDUÑA, AIARA, AMURRIO...

Okm produktua · Garaiko frutak eta barazkiak
Egunero liza okindegiko ogia
Pertsonalizatutako fruten eta barazkien saskiak

945 092 550 · Landako kalea 1, Amurrio · @frutadenda_selene

erreportajea



Jesus Garcia Ferreirok bere buruaz beste egin zuen 1999an. Aiaraldea.eus

Jesus Garcia Ferreiro: mina jasanezin bilakatzen denean

25 urte igaro dira Jesus Garcia Ferreiro 18 urteko gazte audioarrak bere buruaz beste egin zuenetik. Denbora nahikoa igaro da suizidioaren inguruan hausnartzeko, bere kasu pertsonaletik abiatuta.



Testua **Aitor Aspuru Saez**

1999ko maiatzaren 17an telefonoak etxean jo zuen. Hartu eta bestaldean nire lagun baten ahotsa entzun nuen: “Aitor, Jesusek bere buruaz beste egin du”. Hilabete gutxi lehenago, larunbat batean, adiskide hori eta biok banku batean eserita geundelarik, aipatu nion uste nuela Jesus Garcia Ferreiro suizidatuko zela, baina ez nuen uste berehala izango zenik. Urrun zegoen aukera baten moduan sumatu nuen, baina udaberri apurtu horren erdian heldu zen zorigaiztoko albistea.

Gertakari horrek nire bizitza puskatu eta izoztu zuen. Gutxienez hiru edo lau urte eman nituen guttiz hondoratuta, erruak jota, eta egunero Jesusi buruz hausnartzen. Bere erabakia ulertzen saiatu nintzen, saminetik idealiziora egin nuen jauzi, bere buruan zegoena biltzen puzzle baten moduan, gogokoen zuen filosofoa irakurtzen, suizidioari buruzko nire iritziak guttiz aldatzen eta, bereziki, asko eta txarto sufritzen. Hainbat urte pasa ondoren, sufrikarioaren atal hori ixtea erabaki nuen eta zurrumbiloa gelditzeko, ondorioztatu nuen Jesus berekoi eta egoskorra izan zela, alegia, erabakia hartu zuela besteongan pentsatu gabe.

Aurten, ordea, 25 urte bete dira nire lagunak bizitzari agur esatea erabaki zuenetik, eta zauriak eta

orbainak guztiz osatu ezin badira ere, denbora nahikoa igaro da Jesusen hautuari buruz hitz egiteko. Alegia, Jesusi bakarrik leporatu ahal zaio bere bizitza amaitu izanaren ardura? Ez zen gizarte edo komunitate osoaren huts egitea? Benetan aldatu dira gauzak egoera psikiko zaugarrian dauden pertsonentzat, edo 1999an genituen tresna urri berak daude gaur egun?

Eta garrantzitsuena, nork argitu dezake hori? Nik? Argi eta garbi ez. Jesus nire gelako mahaikidea izan zen institutuko azken ikasturtean. Elkarrekin igaro genituen bere azken hilabeteak bizirik eta berarekin nituen eztabaidak ezin nituen beste inorekin izan. Nire kuadrilla batuta mantentzen zuena, finean, maskulinitate toxikoa, kuxkuxeok eta futbola ziren, eta handik kanpo elkarrizketa kolektiboak ez ziren askoz harago joaten, oro har.

Gauzak horrela, sekulako lotura sortu nuen Jesusekin izandako talka nerabe-filosofikoen bitartez. Ni, anarkista sutsua, gizakiaren baikortasun amaigabearen sinetsita. Bera, nihilista militantea, fede gutxirekin gizadian. Bakunin Nietszcheren kontra. Orduak ematen genituen politika eta filosofia uztartzen, eztabaidatzen eta moka ia haserretu arte, baina beti errespetuz eta umorez. Eta ez ginen horren sakonak etengabe, maiz barre egiten genuen txantxeekin, tontokeriei buruz aritzen ginen eta noizbait ere izerdi patxetan jarri

ninduen, adibidez, azterketa batean nire erantzunak kopiatzeari ekin zionean, irakaslea alboan zegoen une batean.

Hortik harago, zer nekien Jesusi buruz ikastetxetik kanpo? Ezer gutxi. Horregatik, hain zuzen, hurbilen zituen pertsonekin hitz egitea premiazkoa da korapiloa askatzeko.

Erreportajea idazteko bere senideen baimena izanda ere, Laudiotik urrun bizi dira. Hortaz, nagusiki, bi pertsona geratzen dira eskura inkognita argitzeko. Bi lagun horiek Arantza Fernandez Mariño eta Endika Loidi dira. Arantza bere bikotea izan zen. Endika, aldiz, bere lagun mina. Eurekin atzera so eginda, errazagoa izango da heriotzaren muinera heltzea, bainairagana islatzen duen gertakariak, tamalez, gaurkotasun osoa dauka.

Izan ere, Espainiako Estatuan suizidioa 15 eta 29 urteko gazteen arteko heriotzen bigarren arrazoi nagusia da eta bere buruaz beste egindako nerabeen kopurua biderkatu zen 2021ean eta 2022an. ONCE Fundazioaren ikerketa batek mahairatu du 16 eta 29 urteko gazteen artean %25,5ak sufritzen duela nahi ez duen bakardadea.

Euskal Autonomia Erkidegoan, 2022an 174 lagunek egin zuten bere

Jesus Garcia Ferreireoren heriotzaren gakoak ulertzeko Arantza Fernandez Mariño bere bikote ohiarekin eta Endika Loidi bere lagun minarekin hitz egin beharra dago, sinplifikazioa edota erroman-tizazioa ekiditeko

buruaz beste, hau da, ia pertsona bat bi egunero. Gizartean gertatzen ari den odoluste isilaren beste tanta bat izan zen Jesusen kasua, baina suizidio bakoitzaren atzean dagoen drama eta sufrimendua irudikatzen ditu, baita konponbide kolektiboa topatzeko ezintasuna ere.

Latorroko ikaslea

Dena den, has gaitzen abiapuntutik. Jesus ez zen niretzat ezezaguna institutuko klasekideak bilakatu ginenean. Hain zuzen, Latorro ikastetxeko jolastoki-kidea zen. Berak urte bat gehiago zuen eta zentroko mutil eder ofizialekoa zen: Grezia klasikoko mitoen ertz karratuz beteriko aurpegiak, begi argiek eta ile motzak guztien arreta deitzen zuten. Karisma eta ospea bazuen, eta egia esateko, nik nahia-go nuen berarekin ez nahastea, gurekin (txikiagoekin) mintzatzen zenean ez baikenekien modu atseginean txantxetan zebilen edo adarra jotzen. Ez zen *bully* bat, inondik inora, baina oso gogoko zuen bere umore bitxi eta misterioitsuarekin zirikatzea, eta horrek apur bat kikiltzen zuen.

Orduan, zer gertatu zen 1994tik (Latorro utzi zuenetik) 1998ra, nire

Euskal Autonomia Erkidegoan herritar batek bere buruaz beste egiten du bi egunero, eta saiakera egiten dutenak askoz gehiago dira

gelakidea bilakatu zen arte? Arantzak eta Endikak oso argi daukate: 1996an izandako istripua erabat lazgarria izan zen berarentzat. Larunbat batean, auto batek harrapatu zuen Correoseko egoitzaren aurrean. Ezbeharra oso larria izan zen eta Jesusek, lehenik eta behin, hilabete igaro zuen ospitalean, eta denbora luzea etxean, aulki gurpildun batean, geroago. “Gutxitan ateratzen zen kalera, tarteka nik ateratzen nuenean. Denbora luzea eman zuen bakarrik”, oroitu du Endikak.

Ezbeharraren trauma eta ondorengo bakardadea eta isolamendua albiste txar gehiagorekin etorri ziren. Hala azaldu du Arantzak: “Istripua izan zen detonatzailea. Jesusek oso txarto pasa zuen, baina ez zen hori soilik izan. Harrapaketa martxoaren 23an izan zen eta sei egun beranduago, ‘Coco’, bere laguna, meningitisagatik hil zen. Oso harreman ona zuten eta dena aldi berean gertatzea gehiegi izan zen. Adin horrekin, hamabost urte, jendeak ez daki nola egin aurre egoerari, ez dauka bitartekorik. Horrez gain, ikasturtea errepikatu behar izan zuen istripuagatik. Horren ondorioz, goitik behe-ra aldatu zen bere inguru guztia.



erreportajea

Finean, bat-batean bestelako testuinguru batean kokatu zuten, helduleku gehienak desagertu ziren”.

“Ulertu beharra dago Jesusek denbora gehiegi igaro zuela bakarrik. Hasteko, ospitalean, gero etxean. Bestalde, ikasturtea errepikatu behar izan zuenean, ez zen institutuan izan. Han egin behar ziren obregatik, Latorrora bidali zuten Batxilergo Bateratu Balioa-

1996an istripu larria izan zuen Jesusek eta ospitalean zegoela, bere lagun bat hil zen. “15 urterekin jendeak ez dauka tresnarik horri aurre egiteko”, azaldu du Arantzak

niztuneko 2. ikasturtean. Hau da, Jesus lagunik gabe eta aurretik bere eskola izandakoan topatu zuen bere burua. Ordu asko eman zituen bakarrik edo testuinguru arrotzean denbora gutxian”, azpimarratu du Endikak.

Buru osasuna kolokan

Horrenbeste gertakari traumatikok (istripuak, bakardadeak, lagun baten heriotzak, isolamenduak, giro aldaketak...) eragina izan zuten zuzenean bere ongizate psikologikoan. Suizidioen arrazoia ez da bakarra eta adituek aipatzen dutenean zein faktore izan ohi dituen jendeak bizitzari amaiera emateko, arestian azaldutakoak nagusien artean daude, depresioarekin batera (suiziden %60ak pairatzen baitu gaitz hori). Gauzak hala, ez da harritzekoa Jesusen buru osasunak apurka-apurka okerrera egitea eta, horrekin batera, bere izaera bera eraldatzea. Une batean, psikiatreek eskizofrenia diagnostikatu zioten, nahiz eta bere anaiak, Jose Manuel, gogoratzen duen psikiatren eta psikologo baten artean diagnosiak ez zuela adostasuna sortzen.

“Ezin dut zehaztu noiz agertu zen buru gaixotasuna. Ez zen prozesu lineala eta arrazoi bakarragatik izan, aldagai ugari egon ziren, konplexua izan zen. Aldaketa, dena



San Roke ermitan denbora ugari igarotzen zuten Jesusek, Endikak eta Arantzak nerabezeroan. [Aiaraldea.eus](https://aiaraldea.eus)

den, hasieran, ez zen txarrera izan. Interesgarria zen bizitzari buruz hausnartzea eta guztiz ulertzen ez genituen liburuak irakurtzea”, adierazi du Endikak.

Egoera horretan, Jesusek erreferente geroz eta ilunagoak hautatu zituen. Nietzsche edo Gioranen gisako filosofoak edo, bereziki, Nirvana musika taldea, melomano hutsa baitzen. “Oso sentibera zen. Ezin zuen telebista ikusi, izugarria iruditzen baitzitzaion emititzen

“Ezin dut zehaztu noiz agertu zen buru gaixotasuna. Ez zen prozesu lineala izan, eta aldagai ugari egon ziren”

zutena. Hala ere, musika oso gogoko zuenez, Kurt Cobain eta Nirvana hartu zituen erreferentetzat. Talde gehiago zituen gogoko, Pixies adibidez, baina sortzaile ilun eta negatiboetara jotzen hasi zen”, aipatu du Arantzak.

“Uneren batean, Kurt Cobainen zenbait keinu edo begirada kopiatzen zituela nabaritu nuen”, erantsi du Endikak.

Seinale horiek laster izan zuten isla eta suizidioaren ideia bere

elkarrizketetan agertzen hasi zen oso goiz. Arantzak bere nerabezero egunkaria berrikusi du eta ondorioztatu du horri buruzko erreferentziak 1996an agertu zirela jadanik.

Aipu horiek aintzat hartu beharreko elementuak dira. Izan ere, bere buruaz beste egiten duen jende gehienak aurretik adierazten du horretarako asmoa duela. Aurreiritziek esaten dute horrelakoak aipatzen dituztenek arretea deitu

erreportajea



nahi dutela, baina errealitatea kontrakoa da: suizidek maiz partekatzen dituzte pentsamendu horiek eta onena da eurekin sentimendu horri buruz hausnartzea, hitz egitea, tentuz, eta ez egitea ez entzunarena edo mespretxatzea. Garrantzitsua da ez ematea aholkurik, ez epaitzea, ez egozte errua, ez ekiditea eurekin egotea. Finean, lagungarria da entzutea eta adieraztea hor egongo zarela berak behar duenean eta saiatzea azaltzen pentsamendu

horiek ez direla bere errua, gaixotasun edo egoera batena baizik, eta gaudituko duela eta beste modu batean ikusiko duela bizitza.

Horrela egin zuten behin Endikak eta Josemak, bere anaiak. Solasaldi luzea izan zuten suizidioaren ideari buruz Jesusekin, bere buruaz beste egiteko objektu bat topatu ziotenean. Azkenean ez zen erabakigarria izan, baina argi dago bide onean esku hartu zutela eta bere hautua atzeratu zutela.

Berez, zure inguruan norbaitek horrelako nahiak azaleratzen baditu, badaude lagundu dezaketelakarteak, Asasam kasu. Profesionalen esku hartzea ezinbestekoa da, baina laguntzea guztien esku dago, irizpide erraz batzuk kontuan izanda betiere: adibidez, lagungarriak ez diren argudioen erabilera baztertzea. Esaterako, behin honi buruz eztabaidatzean, Jesusi esan nion buruaz beste egitea koldarren kontua zela. Nola lagundu dezake

**JOSU VAQUERIZO**

JESUSEN LAGUNA

Josu Vaquerizok 1999an bertan utzi zuen Audio eta Ingalaterrara jo zuen. Han Ggghost Townnn taldea sortu zuen eta Jesus Garcia Ferreiroren omenezko abestia egin zuen.

1996

1996an hitz egin nuen zurekin lehenengo aldiz
Laster hasi ginen denbora pasatzen, gorroto genuen
batxilergoa

Gure herria faltsuz eta somnanbuluz beteta
Nerabe larrituak ginen, baina belar apurra genuen
Kaseteak entzuten zure etxean pertsianak jaitsita
Utzi eguzkia eta uda kanpoan, eta jo ezazu beste
abesti bat

Gitarra jo eta amestu izar undergrounda izatearekin
Hasi musika banda bat Thurston bezala, gure soinu
propioa sortu.

Ez esan hemen harrapatuta gaudela, joan gaitezen
herri honetatik
Ez begiratu atzera, soilik ihes egin, erre baino lehen

Garagardoa edaten eraikinen atzean, neskei buruz
hitz egiten,
Jean Paul Sartre, Leonard Cohen edo Kurt Cobainen
heriotza

Suizidioa beti zegoen presente, agian jakin behar
izan nuen
Egin ahal izan nuen zerbait gelditzeko, itxaropen
apurra emanda
Ermita itxi batean sartzen, non ezkutatu ohi zinen.
Besteekiko urrunduta, gazte batzuek ez dute ezer
euren baitan.

Gitarra jo eta amestu izar undergrounda izatearekin
Hasi musika banda bat Thurston bezala, gure soinu
propioa sortu.

Ez esan hemen harrapatuta gaudela, joan gaitezen
herri honetatik
Ez begiratu atzera, soilik ihes egin, erre baino lehen

ENTZUN ABESTIA HEMEN:



erreportajea



horren iritzi moralista eta ukatzai-leak izugarri sufritzen ari den pertsona bat?

Horrela, Rocio Matias Asasameko gerenteak eta psikologoak azpimarratzen du suizidioari buruzko elkarrizketak ez direla ekidin behar: "Norbaiti bere buruaz beste egitearekin lotutako ideiarik duen galdetzeak ez ditu aukera gehiago ematen hori erabakitzeke. Hori ulertzea funtsezkoa da. Suizidioaz hitz egiteari beldurra kendu behar zaio. Argi dago horri buruz ez hitz egiteak ez dituela datuak hobetzen. Bere buruaz beste egiten saiatzen diren pertsonen kopuruak gora egiten du urtetik urtera. Garrantzitsua da espazio seguruak izatea eta epaituta ez sentitzea, horrelako pentsamenduak partekatu ahal izateko. Horri buruz hitz egiteak tentsioa arintzen du eta pertsona batek hori egiteko erabakia hartzeko aukerak murrizten ditu. Gure inguruko norbaitek suizidioarekin

lotutako pentsamenduak izan ditzakeela susmatzen dugunean, galdetu egin behar da, interesa piztu behar zaio eta pentsamendu horiei buruz gehiago kontatzera animatu. Lasai eta epaitu gabe, zalantza eta beldurrik gabe. Bestela, pertsonari zeharka esaten ari garena zera da: pentsatzen ari dena zerbait iluna eta txarra dela, ezinegonaren sentazioa areagotu dezakeela eta ezin dela horri buruz hitz egin. Galdetu diezaiokegu ea inoiz horretarako asmorik izan duen eta ea pentsamendu horiek kudeatzeko trebetasunik duen. Garrantzitsua da esatea pentsamendu horiek landu eta hobetu daitezkeela eta dauden baliabideei buruzko informazioa eman dakiokoela. Hauek dira horietako batzuk: 024 (Jokabide suizidari arreta emateko 24 orduko telefonoa), Osakidetzako Osasun Aholkua eta Asasam bezalako elkarteak".

Buru osasuna, estigma, iragana eta orainaldia

Buru osasunaren gainbehera

Jesusen buru osasunaren egoerara itzulita, behera etortze hori ez zen lineala izan. "Errusiar mendi baten modukoa zen, bolada onak eta txarrak zituen, hasieran ez zegoen horren txarto", aipatu du Arantzak. Oroitzapen bera dauka Endikak: "Azken garaian, asteko egunak oso gogorrak ziren eta asteburuan bazirudien apur bat lasaitzen zela ezinegona".

Izan ere, Jesus gizaki ilun baten moduan irudikatzea klixe faltsua litzateke. Endikak ondo baino hobeto gogoratzen du bere nerabezeroa oso dibertigarria izan zela berarekin, euren lehen mozkorrak izaten eta tabernetan sartzen saiatzen, adingabeak izan arren. Arantzak

Jesus ez zen klixe ilun bat, dibertigarria eta umoretsua zen eta musika zein parranda gogoko zituen. "Gainerako jendearekin ez nituen elkarrizketak berarekin nituen", oroitu du Josu Vaquerizok

ere gogora ekarri du parrandak animatzen zituela eta ni, nire aldetik, primeran nengoen klasean berarekin, pertsona lasaia zen, umore bitxia zuen eta txantxak gogoko zituen (noizbait gehiegi, oroitzen dut ia arazotan sartu gine-la matematika irakaslearekin behin).

Josu Vaquerizo ere Jesusen laguna zen eta primeran gogoratzen du asko pozten zela berarekin egoteaz: "Gainerako jendearekin ez nituen elkarrizketak berarekin nituen. Bizitza, heriotza, musika, filosofia... Edozein gai buruz hitz egiten genuen, eta beti zuen irribarre ironiko eta umoretsua." Josuk, gainera, azpimarratu nahi du Jesus oso gazte ezagun, maitatu eta errespetatua zela, eta nesken artean arrakasta handia zuela.

Hala ere, 1998ko amaieran eta 1999ko hasieran Jesus gero eta okerrago zegoen. Sufrimendu psikikoa indartu egin zen eta berarekin egotea geroz eta zailagoa zen hur-

bilen zegoen jendearentzat. “Une batean konturatu nintzen bera salbatu nahian, ni ere hondoratzen ari nintzela. Otsailean erabaki nuen bikote izateari utzi behar geniola. Ez nuen nire bizitzatik atera, lagunak izaten jarraitu genuen, baina harremana zegoen moduan mantenduz gero, ni ere amildu behar nintzen”, aitortu du Arantzak.

Endikarentzat azken hilabeteak ere ez ziren gozoak izan: “Egunero egoten ginen elkarrekin, baina lauzpabost egun jarraian egon ondoren, atsedena behar nuen, ni ere pentsamendu goibelez kutsatzen bainintzen. Batzutan deseginda joaten nintzen etxera. Modu egoskorrean pentsatuta, ez zen errentagarria. 16 edo 17 urte izanda, pentsatzen nuen ezin nuela gehiago. Oso gogorra zen, baina beti itzultzen nintzen berarekin, nahiz eta gaintzen ninduen eta nik ezin nuen gehiago eman. Hori bai, nire burua garbitu behar nuen gutxienez egun batez bera laguntzeko. Nik ulertzen dut Arantzak hartutako erabakia bikote harremana uzteko”.

Edonola ere, bien ahaleginak ez ziren nahikoak eta horregatik, hain zuzen, oparitu zion Endikak koaderno bat: “Berak idazteko ohitura zuen eta nik ezin nuen egunero hogeitalau orduz zaindu. Inork ezin du hori egin, ez zure anaiak, ezta zure bikoteak ere. Hortaz, koaderno eman nion pentsamendu ezkor horiek nonbaiten jasotzeko eta gero gure artean hitz egiteko”.

Amaitzeko gogoak

Koaderno hori baliogarria da Jesusen egoerara hurbiltzeko. Utzitako testuetan agertzen dira behin eta berriro itxaropenaren falta eta behingoz bukatzeko nahia, baita ilusio gabezia ere. Modu errepikakorrean irakur daiteke jadanik hilda egoetaren sentsazioa duela, eta nekez sentitzen duela ezer positiborik. Sentimendu horiek dira gakoa ulertzeko zerk eramaten duen gizaki bat bere bizitzari uko egitera: sufrimendua inoiz ez dela amaituko pentsatzen dute. Alegia, suizidioaren bidea hartzen duen jendeak (askotan depresioaren ondorioz) ez dauka inolako gogorik hiltzeko, baina irrikan dago sufritzeari uzteko.

Buru gaixotasunaren estigma

Galerak, isolamenduak, tristurak, desamodioak eta, bereziki, traumak eta depresioak balio dute Jesusen erabakia azaltzeko, baina badago beste osagai bat: buru gaixotasunaren estigma. 2020ko pandemiak eragindako arazoaren ondoren, gaitz horiei buruz aritzea guztiz normalizatu ez den arren, arruntagoa bihurtu da, gutxienez.

Baina 1999an egoera oso bestelakoa zen. Nire kasuan, egunero ikusten nuen Jesus “deskonektatzen” zela. Erabat abstraitzen zen eta ez zen inguruan gertatzen zenaz jabetzen, une horietan ez zuen zentzurik berarekin komunikatzen saiakadan,

“Bera salbatu nahian ni ere amiltzen ari nintzen eta bikotea izateari utzi behar izan nion”, aitortu du Arantzak. Endikak ziurtatu du berak ulertzen duela hartutako erabakia: “Oso gogorra zen berarekin egotea, asko sufritzen zuen”

tzeak. Deskonexioak ez ziren luzeak, baina niretzat bistakoak ziren.

Horrez gain, batzutan dardara agertzen zen bere eskuetan. Zer pentsatu nuen nik? Iruditu zitzaidan gaixorik zegoela eta hartzen zituen botiken eragina zela? Inondik inora. Nola pentsatuko nuen nik nire laguna, horrenbeste estimatzen nuena, “ero” bat zenik? Iraingarria zen hori berarentzat. Ez, normalizatu nuen eta bere izaera bereziari egotzi nion.

Dena den, estigma berarekin eta bere baitan zegoen errotuta. Jende batek erotzat jotzen zuen. Kasurik okerreanean, arreta deitzen saiatzen ari zela pentsatzen zuten beste batzuek.

“Tratamenduaren barruan botika oso potenteak eman zizkieten Jesusi eta horregatik makurtuta joan zen garai batean. Ezagun batzuek esaten zidaten oso itxura txarra zuela edo atentzioa erakartzeko saiakerak zirela. Orduan nik pentsatzen nuen: Gaixorik dago! Nola esan dezakezue hori?”, gogorra ekarri du Arantzak.

Orohar, bere inguruan zeudenek eta botiken kontsumoaren jakitun zirenek uste dute substantzia horiek eragin negatiboa izan zutela Jesusengan. Hala azaldu du Asasameko Rocio Matiasekere: “1990eko hamar-

kadan, oraindik ere bigarren mailako ondorio garrantzitsuak zituzten medikazio psikiatrikoek. Efectu estrapiramidal horiei aurre egiteko, normalean, beste sendagai batzuk errezetatzen ziren bigarren mailako ondorio horiek murrizteko: nahi gabeko muskulu-mugimenduak, dardarak, aurpegi-inespresioak... Sintoma estrapiramidalek tratamendu psikiatrikoa uztera eramaten zuten pertsona horietako asko, ezgaitzaileak zirelako eta eguneroko bizitzako jardueretan eragiten zutelako”.


Estigma kanpoan eta barruan

Estigmara itzulita, ez zegoen bakarrik besteen begiradan, berean ere bazegoen. “Garai hartan Google existitzen ez zen arren, ez dakit nola konpontzen zen, baina eskizofreniari buruz asko irakurtzen zuen. Izututa zegoen, ez baitzuen nahi bere gaixotasunagatik niri min egitea”, azaldu du bere bikote ohiak.

Gaixotasunaren kontzientzia hori, nolabait, modu oso anibalentean barneratu zuen Jesusek. Alde batetik, heriotz zigor baten gisa onartu zuen, betirako mugatuko balu bezala. Bestetik, eta ziurrenik depresioaren ondorioz eta ukazio kutsu batekin, gero eta diziplina eta errutina gutxiagoz bizi zen: askotan ez zen klasera etortzen eta noizbait kalean lo egiten zuen. Gurasoek arazoak zituzten kontrolatzeko. “Batzutan bere amak deitzen zidan, galdetzeko ea al nekien non zegoen Jesus. Egun batzuetan, Audio Ikastolara joatean, nire atarian topatu nuen, kalean lo egin zuelako”, aipatu du Arantzak.

Rocio Matiasak azaldu du zein garrantzitsuak diren errutinak buru osasun arazoak agertuz gero: “Egunerokotasunean errutinak mantentzearen onurak nabarmenak dira buru osasuneko arazoak dituzten pertsonengan. Errutinek emozionalki egonkor mantentzen laguntzen digute, bereziki krisialdian edo ezegonkortasun psikopatologikoan. Azken batean, eguneroko errutina faltak estresa eta antsietatea areagotzen ditu, ziurgabetasuna sortzen du eta, askotan, eguneroko zereginak eta pertsonaren erantzukizunak kudeatzea eragozten digu”.

Buru gaixotasunari buruzko anibalentzia horren barruan, Jesusek guztiz baztertzen zuen zentro psikiatriko batean sartzea. Arantzak entzun zion prest zegoela buruaz beste egiteko han amaitu baino lehen. Nahiz eta bere sufrimendu psikikoa neurrigabea izan. Korapilo horretan sumatu daiteke, bereziki, gaixotasuna onartu eta estigma uxatzearen arteko kontraesana.



erreportajea

Apurka-apurka, kaos horrek geroz eta zailagoa bilakatu zuen bizitza arrunta eta funtzionala izatea eta, dudarik gabe, noraezean aritzeak are gehiago kaltetu zuen bere buru osasuna.

Ikasturte amaierarako, edozein ikuspegi galdu zuen etorkizun hurbilari begira eta horrek ere ekaitz perfektua sortzea erraztu zuen, Arantzak oroitzen duenez: “Hautaproba gero eta gertuago zegoen eta berak ez zuen argi zer egingo zuen. Nik arkitektura ikasi nahi nuen eta bera animatzen nuen, filosofia ikas zezan, baina ez zuen erabakirik hartzen. Uste dut ikusten ari zela guztiok aurrera egiten genuela eta bera atzean geratzen ari zela”.

Arestian aipatu bezala, Josu Vaquerizok, orain Ingalaterran bizi den zinema zuzendariak, oso harreman ona izan zuen Jesusekin. Biak lotzen zituen musikak, eta abestiren bat sortzera heldu ziren, baita film laburren bat grabatzera ere. Suizidioa bazen euren arteko eztabaidagaietako bat, etorkizuna bezala: “Bere azken hilabeteetan iradoki nion nire asmoa zela Ingalaterrara joatea udan eta galdetu nion zergatik ez zen bera ere animatzen. Orduan ez nintzen kontziente berak ezin zuela, gaixorik zegoelako, eta agian autonomia falta horren kontzientziak ere ez zuen bere orekan eragin onik izan”.

Suizidioa ikastetxean hizpide

Jesusen egoeran esku hartzeko aukera izan zutenen mapa aztertuta, galdera ikur bat dago ikastetxearen kasuan. Izan ere, Jesusek igaro ahal izan zituen zenbait egun klasera joan gabe, eta inork ez zuen inolako alarrik piztu. Egia esanda, 1999an, piper egitea ez zen ezohikoa eta ez zuen inolako atentziorik erakartzen. Izan ere, garai horietan (are gehiago aintzat hartuta Jesusek 18 urte zituela) hezkuntza sistemak autonomia ematen zion ikasleari.

Egun, buru osasuna pil-pilean dagoenez, existitzen da suizidioaren kontrako protokoloa, 2022/2023 ikasturtean abiatutakoa. Laudio Institutuko zuzendaritzarekin hitz eginda, harriduraz hartu dute 1999an gurasoei ezer ez adieraztea Jesusen ausentzia errepikakorrak eta bere gorabehera emozionalak zirela eta. Izan ere, orain, absentismo protokoloaz aparte, badute suizidio protokoloa aktibatze beharra, hainbat alerta seinaleren aurrean.

Suizidioaren kontrako prozedura hori mahairatu ondoren, zuzendaritzako kideen iritzia argia da: positiboa da sortu izana, hainbat arrisku jokabide identifikatzeko baliagarria delako eta ikaslea eta



Jesus oso gaztetan Laudioko kiroledegian. Eskumaldean Arantza eta Jesus Latorro auzoan. Aiaraldea.eus

Egun suizidioa prebenitzeko protokoloa existitzen da hezkuntza zentroetan, baina 1999an buru osasuna tabua zen

familiarekin esku hartzeko jarraibide argiak direlako. Hala ere, egitasmo berri guztietan bezala, uste dute hainbat jarraibide oraindik hobeto definitzen joango direla.

Hasteko, protokoloa martxan jartzeko alerta seinaleak batzutan oso orokorrak dira, are gehiago nerabeei bideratuta daudenean. “Tristura edo etsimen-sentimenduak, esaterako, alerta seinaleak dira eta oso arruntak dira ikasleen artean, nerabeak direlako. Hil nahi direla esan arren, horrek ez du esan nahi burutazio suizidak dituztenik. Hortaz, batzuetan alerta handia sortzen ari garen beldurra eta segurtasun falta izan ditzakegu. Oso fin aritu behar gara, oso gai sentikorra da eta kontu handiarekin esku hartu behar da”, azaldu dute.

Halaber, azpimarratu dute lehen ere, horrelako jarrerak susmatzen zituztenean, ikastetxeetan eran-

tzuten zutela, baina beste modu batean: “Ez genuen familiari komunikatu behar protokolo bat zabaltzen genuela beren seme alaba bere buruaz beste egiteko arriskua zegoelako, baina bai adibidez, goibel ikusten genuela, bere jokabidea desorekatua zela... eta buru osasuneko profesional batera bideratzen genuen”.

Orain protokoloa ezarri dela, abantailak izanda ere, irakasleek uste dute zama itogarria utzi dutela euren esku: “Suizidioa gai oso arantzatsua da eta adituak behar dira buru osasunari lotutako arazo larri hori tratatzeko, irakasleak ez gara psikologoak ezta psikiatrak ere, eta lagundu nahi badugu ere, askotan ez dakigu benetan laguntza egokia ematen dugun”.

Behin protokoloa abiatuta, ikastetxeak gurasoei edo tutoreei jakinarazten die. Une horretan, ardu-

ra oso handia onartzen du erreferentziatzeko irakasleak: “Ondo egingo duen kezka izan ohi du. Hain zuzen, oso ondo babestu behar da konfidentzialtasuna eta askotan neurriak hartu behar dira, baina gainontzekoei informazio asko eman gabe. Jarraipen hain estua egiten denez, irakasleak ikasle horrekin garatzen duen harremana estutzen da. Horregatik, kezkatzen gaitu azkenean ikaslearen aldetik dependentsia handia sortzen dela batzutan”.

Bestalde, bitarteko gabeziak egoera kafkiarrak eragiten ditu: “Administrazioak egundoko jarraipena egiten digu kasuei buruz eta uda heldzean, erreferentziatzeko perstona hau desagertzen da. Bat-batean, uztailan ez da arazoa existitzen. Noren esku geratzen da irakaslea oporretan badago eta ikastetxea itxi bada?”.

Zenbait kasutan irakasleak harre-

erreportajea



mana mantetzen jarraitzen du ikaslearekin oporretan, baina uste dute zentzu gehiago izan dezakela baliabide hori osasun publikotik eskaintzeak.

Laudio Institutuko kideek, gainera, azpimarratu dute arazo bera dagoela jabego publikoko ikastetxeetan zein itunpekoetan.

Oro har, hezkuntza komunitatearen aldarrikapena da psikologo eta psikiatra gehiago behar direla osasun publikoan, protokoloaren pisu nagusia ez erortzeko irakasleen gain, eta beharrezkoa dela horiek ikastetxera joatea esku hartze profesionalagoa egitera. “Protokoloa aktibatzen badugu, bada premiazko esku hartzearen beharra sumatzen dugulako eta profesional batek lehenbailehen artatu behar duela. Batzuetan sistema motela da eta iruditzen zaigu gauzak ez direla hain arin bideratzen”.

Suizidio baten ondoren, bizirik jarraitzen dutenak

Jende askok uste du suizidio baten biziraulea dela hiltzeko saiakera egin eta lortzen ez duena. Ordea, suizidioa bere egilearen heriotzarekin amaitzen denean, badaude bestelako bizirauleak; senideak eta lagunak, bereziki. Hau da, hil denaren inguru afektiboa. Kalkuluen arabera, bospasei biziraule daude suizida bakoitzeko, eta ez dira ataka errazean geratzen, zenbait adituk adierazten baitute pertsona horiek estres postraumatikoa pairatzen dutela; gerra batean egon direnen esperientziarekin alderatzen dute euren egoera psikikoa.

Hasteko, bizirauleek euren exis-

tentziak eta egunerokoa antolatu eta bete behar dituzte berriro maitate duten pertsona bat desagertu ondoren. Zailtasun ugari mahairatzen ditu horrek. Hasteko, doluari zentzua emateko kontakizuna osatzeko ezintasuna, beti ez baita posible gertatutakoa arrazoa baliatuta azaltzea. Izan ere, errua, trauma eta emozio kontrolaezinak gailendu daitezke. Berziki, errua, zeinak nekez uzten dituen bizirauleak. Guztien buruan errepikatzen da huts egin dutela edota gehiago egin ahal zutela.

Bide ezberdinak daude horrelako muturreko egoerei aurre egiteko. Nola ez, psikologo edota psikiatrekin lan egitea da urratsetako bat. Existitzen dira babes taldeak ere, zeintzuetan bizirauleak batzen diren euren bizipenak partekatze-ko eta elkar laguntzeko, ‘Biziraun’ ekimena, adibidez (www.biziraun.

org). Rocio Matias psikologo eta Asasameko gerenteak nabarmentzen du, dena den, jende oro ez dela eroso sentitzen horrelako taldeetan. Edonola ere, aukera hori egon, badago.

Nola kudeatu zuten Jesus Garcia Ferreiroren ingurukoek euren suizidioa duela 25 urte? Txarto. Garai horretan buru osasuna tabua zen eta ez ziren babes taldeak existitzen. Gizartearen ustea zen horrelako egoerak gainditu behar zirela, besterik gabe. Jesus maitatu zutenen artean, pertsona bat bera ere ez zen joan psikologoarenera eta, ondorioz, doluak izugarri luzeak izan ziren eta beti ez ziren modu egokienean amaitu (baldin eta noizbait bukatu badira).

Ezer azaltzen ez duten suizidio eskutitzak

Jesusek hiru eskutitz utzi zituen

bere buruaz beste egin baino lehen eta, berak kontrakoa uste bazuen ere, bere testuek ez zuten ezer azaldu. Hartzaile guztientzat bere erabakia ulergaitza izan zen eta horien ondorioak latzak izan ziren beti, kasu batzuetan besteetan baino gehiago.

Jesusek hiru eskutitz utzi zituen bere buruaz beste egitean, baina testuek ez zuten bere arrazoiei buruz ezer azaltzen eta, gerora, hartzaileek euren buruak torturatzeko balio izan zuten, nagusiki

Endikaren kasuan, gutxienez, aitortu zion adiskide gisa beti saiatu zela bera laguntzen, baina eskutitza urte luzez izan da modu bat bere burua torturatzeko, behin eta berriro irakurtzeko eta sufritzeko.

Arantzarentzat, eskutitza guztiz kaltegarria izan zen. Berez, nolabait iradokitzen zuen bera gabe (bere laguntza barik bikote moduan) ezin zuela aurrera egin eta, ondorioz, errua, nolabait, bere bizkarrean utzi zuen. Eta ez zen bera bakarrik izan, hainbatek alargun beltza izatea leporatu zioten. Laudioko jende askok, irudi orokorra jakin gabe (buru gaixotasuna, adibidez) eta sinplifikazio mingarria eginda, Arantza bilakatu zuen suizidioaren arduradun. “Klaseko kide batek esan zidan nire errua izan zela, ez niolako lagundu nahi izan. Urte luzeak behar izan nituen berarekin berriro hitz egiteko”, azaldu du Arantzak.

Barruan sentitzen zuen saminari batu zitzaion inguruan sumatzen zituen txutxumutxuak Jesusi buruz, eta ez ziren burutazio hutsak. “Behin

erreportajea



Jesus García Ferreiro San Roke ermitako banku batean. Aiaraldea.eus

nire ama joan zen denda batera eta entzun zuen pertsona batek hitz egiten zuela Jesusi buruz eta aipatzen zuela bere buruaz beste egin zuela neskalagunak utzi zuelako”, oroitu du.

Bere izaera lotsatia, errua eta barruan zituen sentimendu guztiak irakiten egon izanak eragina izan zuen bere buru osasunean hilabete gutxitan. “Jesus hil eta gutxira hautaproba genuen. Nik argi nuen arkitektura ikasi nahi nuela. Hortaz, ezin nuen kale egin, baina bere heriotza eta gero ezinezkoa zen azterketak prestatzea. Ez dakit nola egin nuen, baina azkenean ikasi eta arkitekturak exijitzen zuen notaren langara heldu nintzen. Ikasturtea hasi zenean, ordea, ez nintzen gai izan unibertsitatera joateko. Lehen hilabetean joatea lortu nuen eta gero ezinezkoa egin

gehiago egin ahal nuela sentitzen dut eta uste dut ez naizela bakarra, horrelako gertaerek eragin hori dute”.

Izan ere, jende gehienak ez dakiena da Arantzak bikote harremana etetea erabaki zuenean, Jesus ezustean agertzen zela bere bizitzan, bere arreta eskatzen: “Ez zen kontrolatzeko asmoz, baina goiz batzuetan etxetik atera nintzen Ikastolara joateko eta nire atarian zegoen nire zain. Edo marrazki klaseak amaitzen nituen eta Kultura Etxeko atean ari zen ni itxaroten. Gogoratzen dut behin esan niola ezin nintzela berarekin geratu, nire lehengusinarean jaunartzea zelako, eta hala ere, Ugarteko elizan agertu zen Endikarekin eta berriro azaldu behar izan nion ezinezkoa zela berarekin geratzea, familiarekin egon behar bainintzen”.

Endika: Txanponaren beste aldea, baina ez gozoagoa

Generoak dena zeharkatzen duenez, Arantzari *femme fatale*ren rola egokitu zitzaion moduan, Endikari, aldiz, lagun jatorrarena erori zitzaion eta hasieran eskertzekoa izan zen: “Jesus ez zen soilik nire lagun minena, agian baita nire lagun bakarra ere. Maiz Josu Vaquerizorekin egoten ginen, baina gure kuadrillatik aldentu ginen, ematen zuelako parrandarako lagunak ginela, baina bigarren mailakoak. Une horretan, La Meca taberna ohitik igarotzen hasi ginen eta, zorionez, Isusko eta beste pertsona batzuekin hasi ginen harremantzen. Jesus hil zenean, Isusko Laskibarrek izugarri babestu ninduen eta egun nire lagun minena dela esan dezaket, nahiko bakarrik geratu nintzen”.

Dena den, Isusko ez zen laguntzeko prest agertu zen bakarra: “Laudioko gizarteak, nolabait, Jesusen adiskide izendatu ninduen eta jende orok babestu nahi ninduen, baita ezezagun ugarik ere. Adibidez, hori Josu Vaquerizori ez zitzaion gertatu, ez zegoelako horrela identifikatuta. Hasieran polita izan zen, gero apur bat traumatikoa, estigma baten modukoa. Jendeak bakean uztea nahi nuen”.

Hala ere, babes lauso hori lagun-garria izan zitzaion Jesusen suizidioa igaro eta bizpahiru astera. “Denbora luzea igarotzen genuen Jesusekin Laudio Rock Café Nocturnoan (egun Lamuza plazan Eroski supermerkatua dagoen tokian) eta jabeak proposatu zidan han lan egiten hastea. Urteak igarota pentsatu dut mesede gisa egin zuela eta maitasunez gogoratzen dut garai hura. Jende orok ondo tratatu ninduen eta lankide nagusiekin aritzeak ireki zizkidan ateak. Nik 18 urte nituen eta beste zerbitzariek 25.

“Nik ahal izan nuen guztia egin nuen eta hori badaikit arrazionalki, baina egun ere errua sentitzen dut eta uste dut ez naizela bakarra”, adierazi du Arantzak

zitzaidan. Ikara sentitzen nuen, ezin nion aurre egin. Lehen ikasturtea oso zaila izan zen niretzat. Azken ikasturtea Segovian egitea erabaki nuen eta hori mesedegarria izan zen, distantzia hartzea lortu nuen, baina hiru urte horiek oso latzak izan ziren”, aitortu du Arantzak.

Gaur egun gaiari buruz hitz egiteak ahalegin izugarria exijitzen dio Arantzari: “Nik egin ahal izan nuen guztia egin nuen. Hori badaikit, arrazionalki, baina gehiago egin ahal nuelaren sentsazioa geratu zait emozionalki, ez da erraza azaltzea. Egundak errua sentitzen dut,

erreportajea

Guztiak ziren helduagoak eta babes-ten ninduten. Horrela ere asteburuko gauak lana bilakatu nituen. On egin zidan”, gogoratzen du Endikak.

Bero hori jaso izana onuragarria izan zen hasieran, baina epe luze-za ez zen, inondik inora, erabaki-argarria izan: “Lehen hilabeteak oso gogorak izan ziren. Olatu baten moduan etorri zen dena. Gero, sei hilabete igarota, Latorrotik herri- gunera nihoala, honako hau pentsatu nuen: ‘Aspaldi ez dudala Jesus ikusten, joango naiz bere etxera’. Eta orduan erreparatu nion hilik zegoelari. Orduan konturatzen zara. Gero, bizpahiru urtera ere maiz egin nuen negar. Izan ere, hasi nintzen pentsatzen Jesus gabe bizitza askoz errazagoa zela eta pen-

tsamendu hori izateagatik oso txarto sentitzen nintzen. Hori ez zen guztia izan, urte batzuk beranduago ere asko sufritu nuen, 24, 25, 26 urterekin. 27 urterekin etxetik joan nintzenez, egun nire etxebizitza dena, urte oso gogorra igaro nuen. Bere koaderno eta eskutitza oso eskura nituen eta behin eta berriz irakurri nituen. Garai hori ere latza izan zen eta asko egin nuen negar. Uneren batean erabaki nuen gehiago ez irakurtzea eta gero eta gehiago ezkututzea”, aitortu du Endikak.

Suizidio batek eragiten dituen beste heriotzak

Beste batzuek suizidioaren inguruko iritzia aldatu bazuten (nik idealizatu eta Josu Vaquerizok era-

bat alderatu) ere, Endikak beti izan zuen argi hori ez zela irtenbidea: “Bizitza bizi beharra dago eta Jesusi esaten nion berak bere buruaz beste eginda, agian bere sufrimendua amaituko zela, baina beste kontu batzuk utziko zituela”. Hala ere, suizidio batek bizitza batekin amaitzen du, baina bestelako heriotzak ere eragiten ditu. Ez dira organikoak, baina bai sinbolikoak baino gehiago.

Izan ere, bizirauleentzat hain gertakari traumatikoa da, ezen euren izaera eraldatzen baitu. Hau da, euren nortasuna berezko ibilbide naturalean badago, suizidioa kolpe izugarria da eta orbitatik ateratzen du.


Egoera arrunt batean izango ziren pertsona horiek ez dira izango,

“Bizitza bizi beharra dago eta Jesusi esaten nion berak bere buruaz beste eginda, agian bere sufrimendua amaituko zela, baina beste kontu batzuk utziko zituela” gogoratu du Endikak

suizidioak sortutako trauma handiagoa baita. Gauzak horrela, Endikak argi dauka ez dela berriro lehen zena izan: “Argi dago orain 43 urte ditudala eta hori jazo zenean 18, baina pertsona hotzagoa bilakatu naiz. Ez dut garai horretan eskaintzen nuena eskaintzen eta beste moduan egiten dut. Ez naiz berdinerakusten. Saiatzen naiz ahalik eta bizitza lasaiera eta erosoena izaten. Ihesaldirako joera dudala esan dezakegu. Adibidez, garai horretan zenbait liburu mardul irakurri genituen, ez dakit guretzat egokiak ziren, baina bai interesgarriak. Egundak irakurtzen badut, izan politika edo historia, saiatzen naiz errazago izaten. Filmeekin gauza bera. Bizitako bizi eta gero, kaka nahikoa jan dut”.

APUNTEAK

Zer irakurri?




MOIO, GORDETZEA EZINEZKOA ZEN

Idazlea: Kattalin Miner

Argitaletxea: Txalaparta


Bere buruaz beste egin zuen Aimar Elosegi Ansa “Moio” gazte transexualaren bizitza du hizpide liburuak, bere lagun min izan zen Kattalin Minerrek idatzita.



SALDREMOS DE ESTA

Egilea: Javier Erro

Argitaletxea: Primera Vocal eta Biblioteca Social Hermanos Quero
Buru osasun arazoak pairatzen dituen pertsona baten ingurukoentzako (lagunak, senideak...) pentsatutako gidaliburu. Baliabide eta erreferentzia ugari eskaintzen ditu.




HABLEMOS DEL SUICIDIO

Egilea: Gabriel Gonzalez Ortiz

Argitaletxea: Eunsa. Ediciones

Universidad de Navarra, S.A.
Gabriel González kazetariak suizidioaren fenomenoaz aztertzen du esparru anitzak lantzeko: komunikazioa, prebentziorako balizko ekintzak eta hainbat kasu zehatz.



WWW.LABUR.EUS/APUNTEAKI

Zer dakigu benetan suizidioari buruz?

Suizidioarena gai tabua izan da betidanik, eta uste oker ugari daude zabaldua gaiaren inguruan. Zenbat dakigu benetan gaiaren inguruan?

BETE GALDETEGIA ETA EZTABAIDATU ZURE INGURUKOEKIN

Nora jo?



024 telefonoa

Idea suizidak dituzten pertsonentzat pentsatutako arretarako telefonoa da, eguneko 24 orduan martxan dagoena eta Espainiako Osasun Ministerioak kudeatzen duena.



Asasam

Buru gaixotasuna duten pertsonen eta senideen Aiaraldeko elkarte da. Hainbat motatako arreta eskaintzen dute, baita suizidioari lotuta ere.

☎ 94 403 46 90 / 94 672 64 46



Tradizioa eta jaia uztartuko dituzte *Sagar Egumean*

2017an antolatu zuten Sagar Eguna lehenbiziko aldiz Kukutze elkarte kideek, eta ordutik hona urtero errepikatu dute zita urrian, pandemiak irekitako parentesian salbu. Sagarrak Lau-dioko eta eskualdeko historian izan duen garrantzia eta jokatu duen berebiziko papera nabarmentzea izan da beti ekimenaren xedea.

Horretarako, antzeko egitaraua mantendu du jaiak azken urteetan, eta aurten ere egitura bera izango du. Urriaren 12an izango da aurten zita, datorren larunbat goizean. Ohikoan bezala, Aldai plazan hasiko dute jai goizeko hama-

rretan, artisauen eta baserritarren produktuen azokaren eta sagardoa egiteko tresnen zein antzinako argazkien erakusketekin. Ordu berean egingo dute "Sagarraren aurkezpena" eta sagar zukua ekoizteari ekingo diote jarraian, eskuzko metodoak zein prentsa baliatuta.

11:30etatik aurrera haurrentzako jokoak ere egongo dira plazan. Handik ordu erdira gastronomia txapelketaren txanda izango da. Parte hartzaileek etxe edo txokoetan egin beharko dituzte sagar-tartak, eta 12:00etatik 12:30etara izango dute prestatutakoa aurkezteko tartea.

Sagar-desafioa

Horren ostean iritsiko da eguneko jarduerarik deigarrienetako bat: sagar-desafioa. Parte hartzaileek eguerdiko hamabiak arte izango dute erronkan izena emateko tartea, eta ahalik eta sagar-zuku gehien egin beharko dute denbora tarte jakin batean, fruta zatituz eta txikituz.

Norgehiagoka horren klimaxa igarota amaituko da Sagar Egunaren aurtengo edizioa, fruitaren zukuarekin egimiko garrafaren dastatzearekin eta tarta lehiaketaren zein desafioaren sari banaketarekin.

KIROL JARDUERAK

10.12 Larumbata
9:30-18:00 URDUÑA
ORDUÑA CITY CROSS
Foru plaza

10.13 Igandea
10:00 AMURRIO
EMAKUMEEN KIROL
TOPAKETA
Juan Urrutia plaza

10.15 Asteartea
12:00 LAUDIO
ASASAM ETA LA
MILAGROSAREN ARTEKO
ELKARBIZITZA PARTIDA
Granja kiroldegia

ANTZERKIA

10.19 Larumbata
20:00 AMURRIO
"ALGUIEN VOLO SOBRE
EL NIDO DEL CUCO"
Sarrerak: 5 euro
Amurrio Antzokia

MUSIKA

10.12 Larumbata
19:00 LAUDIO
HITZALDIA ETA
KONTZERTUAK
Fallas del sistema,
Obduccion de la amenaza
eta Zirt zart taldeak
Orbeko Etxea

HITZALDIAK

10.14 Astelehena
18:00 ARTZINIEGA
"GENERO ETA GORPUTZ
DISIDENTEAK, AZALETIK
ERRORA"
Ira Pereiroren eskutik, doan
Udal liburutegia

10.15 Asteartea
18:00 LAUDIO
"ERDITZEAN ETA GERO
ZER GERTATZEN DA ZORU
PELBIKOAREKIN?"
Miren Urquijoren eskutik
Faktoria

10.16 Asteazkena
18:30 AMURRIO
MITO GREZIARRETARA
HURBILTZEKO HITZALDIA
Amurrioko Udal Liburutegia

10.16 Asteazkena
18:30 URDUÑA
MARIA LUISA
GOIKOETXEAREKIN
ETA EZINA EKINEZ

10.20 Igandea
11:00 LAUDIO
AUTODEFENTSA
FEMINISTA TAILERRA
Izena bost egun lehenago
eman behar da
aialaudio@ludio.eus
helbidean
Lezeaga aretoa

10.23 Asteazkena
16:30 AMURRIO
WIKITXOKOA
Amurrioko liburutegia

FAMILIA JARDUERAK

10.12 Larumbata
17:30 LAUDIO
SORGIN ZAPATUAK
Kirikiño taldearen eskutik
Lezeaga aretoa

BESTELAKOAK

10.12 Larumbata
10:00 LAUDIO
SAGAR EGUNA
Aldai plaza

10.17 Osteguna
18:30 LAUDIO
LAUDIOKO UDALAREN
HIZKUNTZA POLITIKETAN
ERAGITEKO EKARPEN SAIOA
Kultura etxea

10.17 Osteguna
19:30 URDUÑA
ZINEFORUMA:
KONFIANTZA ITSUA
Gizarte Etxea

10.19 Larumbata
10:30-18:30 ARESKALDITZA
BASONDORA TXANGOA
Izen ematea urriaren 12a
baino lehenago egin behar
da telefono honetara deituta:
645739202 (Esti)

10.19 Larumbata
12:00-18:00 AMURRIO
ARESKETA IKASTOLAKO
LEHEN PROMOZIOKO
IKASLEEN 50. URTEURRENA
Aresketa Ikastola

10.20 Igandea
8:30 URDUÑA 8:45 AMURRIO
NAFARROA OINEZ-ERA
JOATEKO AUTOBUSA
Tiketak Kultur Etxean eta
Alondegian eros daitezke
urriaren 17ra arte
Suhiltzaileak eta Araba kalea

10.20 Igandea
12:00 ARTZINIEGA
KULTURARTEKOTASUN

Txirrindula

festa larunbatean

Urduñan



Orduña City Cross txirrindularitza topaketa egingo dute urriaren 12an Urduñan. Hainbat kategorietako kirolariak lehiatuko dira goizetik hasita. Baina probarik deigarriena 17:15ean izango da, orduan abiatuko baita Turbo Cross-a. Lasterketa herrikoia izango da, eta parte hartzaileek mozorrotuta egin ahaliko dute. Ondoren, kontzertuak egingo dira gauean hirian.

Asaltamontes Female

emakumeen mendi ibilbidea

antolatatu dute urriaren 13rako



Asaltamontes Female emakumeen kirol topaketa antolatatu dute datorren urriaren 13rako. Amurrio inguruko mendietara egingo dute ibilaldia, emakumeak mendira joatera anima daitezten. Goizeko hamarretan jarri dute hitzordua, Amurrioko Juan Urrutia plazan.

Amaiteran hornidura egongo dela iragarri dute, eta baita produktu ezberdinen zozketa ere. Izen ematea doa koa izango da eta ondorengo esteka honetan egin daiteke:

www.labur.eus/asaltamontes. Antolatzaileek azaldu dutenez, emakumeek mendira ateratzeko, naturarekin harremanasentzeko eta kirola egiteko beharra zutelakojaiozen. Asaltamontes Female ekimena.

Izan ere, azaldu dutenez, "emakume askok maite dute kirola praktikatzeko, baina ez dute norekin, edo beldur dira, edo trabadirela sentitzen dute gizonekin badoaz". Horregatik da proba emakumeentzat bakarrik.

Aiaraldeko gertaerak mugikorrean jaso nahi?

HARPIDETU GURE KANALETARA!



Jaso Whatsappean eguneko edukiak, **688 848 152** zenbakira AIARALDEA GAUR mezua bidalita!



Batu Telegramera **t.me/aiaraldeaeus** esteka bidez!



INFO+ www.aiaraldea.eus



Kartelera



AMURRIO
ANTZOKIA
Bite the Bullet
URRIAK 13, 14
IGANDEA ETA ASTELEHENA
(5 / 3,75 euro)
19:00



AMURRIO
ANTZOKIA
Gru 4
URRIAK 20
IGANDEA
(3,75 euro)
17:00



AMURRIO
ANTZOKIA
Volveréis
URRIAK 20
IGANDEA ETA ASTELEHENA
(5 / 3,75 euro)
19:00



AMURRIO
ANTZOKIA
Mediterráneo
URRIAK 25
OSTIRALA
(Doan)
18:00

elkarrizketa

“El Conquistador hilabete bat gutxienez aguantatzea espero dut”



MIKEL JIMENEZ (Amurrio, 1996) DA EL CONQUISTADOR TELEBISTA SAIOAREN 21. EDIZIOKO LEHEN PARTE HARTZAILEA. ZUZENEAN LORTU DU LEHIAKETARAKO TXARTELA INSTAGRAMEN 6.000 BOZKA BAINO GEHIAGO ESKURATUTA, ETA MISERIA PASATZEKO GAITASUNA DUELA BAIEZTATU DU.



Testua **Oihane Ozaeta Fernandez**
Argazkia **Nala Vallejo Torres**

El Conquistador saioaren 21. edizioko lehen parte hartzailea zara, zorionak! Zelan jaso zenuen albistea?

Gasteizeko KZ gunera joan nintzen IT txartelak egitera, eta NANA ahaztu nuen bertan. Bat-batean agertu ziren, esan zidaten azken alegatua egiteko etorri zirela nigana, eta besteengana ere joango zirela. Baina gezurra zen: sobrea eman eta jendeak hautatu ninduela esan zidaten.

Sorpresa izan zen orduan?

Bai, ez genekien ezer, gero perretxiko bila gindoazelako.

Irailaren 20tik 27ra bozkatzeko aukera egon zen saioaren Instagramean. Lau finalista heldu zineten bozkaketa fase horretara, eta zuk irabazi zenuen, 6.000 bozka lortuta. Espero zenuen?

Banekien jendeak asko ikusten zuela, baina ez zen ikusten zenbat “atsegin dut” zituen bideoak. Jakin nuenean konturatu nintzen jendea asko mugitu dela nigatik, eta hori eskertzekoa da. Izan ere, desberdintasun handia egon da, ni 6.000 pertsonen bozkatu naute, eta bigarrena 2.000 pertsonen.

Eta jakin zenuenean zer pentsatu zenuen?

Blokeatu nintzen. 6.000 bozka asko dira, eta bigarrena-

rekiko aldea hain handia izatea arraroa da. Horrek esan nahi du jendea mugitu egin dela, Boliviatik, Argentinatik...

Zer dela eta bozkatu zaitu leku horietako jendeak?

Ezagutzen nautelako. Sei hilabetez egon naiz Argentinan bizikletarekin mugitzen.

Beti nahi izan duzu saio honetan parte hartu? Zergatik orain?

Beti ez, azken urteetan ez nuen hainbeste nahi. Aurreko urtean asmoa nuen, baina Argentinara joan nintzen ezin izan nintzen apuntatu. Eta aurten joatera animatu naiz.

Uste zenuen hautatua izango zinela?

Ez nekien, baina saiatu behar nintzen. Ez nuena uste zen aukeratuko nindutela abesteagatik, oso gaizki abestu nuen gainera. Ez nuen uste horregatik hautatuko nindutenik, beste hobeago bat egongo zela uste nuen.

El Conquistador-era joan arte zelan prestatuko zara? Entrenamendu berezirik egingo duzu?

Normalean egiten diren probak egingo ditut bereziki, trebatzeko. Eta agian aldizkako baraua egingo dut, jada egiten dut, baina luzeagoak egingo ditut, ordu edo egunetakoak.

Kostatuko zaizula uste duzu?

Nik uste baietz, gehien kostatuko zaidana gosea izango da. Beste guztiarekin nik uste nahiko ondo moldatzen naizela. Agian proba batean ni baino indartsuago dagoen norbait egon ahal da, edo sokekin hobeto moldatzen dena, baina nik uste dut ondo moldatuko naizela. Miseria pasatzearekin ez daukat arazorik.

Zergatik uste duzu partaide ona izango zarela? Zer duzu desberdin beste partaideek agian ez dutena?

Momentu txarrak pasatzeko aguantea. Argentinako lagunak ezagutu arte nire kabuz joaten nintzen mendira, esperientzia bisitzera. Eta Argentinakoekin taldean joaten ginen, bakoitza bere alde on eta txarrekin. Miseria pasatzeko gaitasuna daukat.

Ondo moldatzen zara taldean?

Bai, orokorrean bai. Baina aguantatu behar da, hilabete bat behintzat aguantatuko dut, edo hori espero dut.

Zer espero duzu? Ze helburu lortu nahi dituzu?

Esperientziaz disfrutatzea. Horrelako momentuetan jendea nolakoa den ikustea, talde-lana delako, eta sailkatuko gaituztelako, ez da mendira bakarrik joatea bezala.

Urdurik zaude?

Pixka bat bai, ea zelakoa izango den. Nire esperientzia izango da, baina jendeak bozkatu nauelako heldu naiz honaino, eta neurrian gotea espero dut.

Azken erromantikoak filma

Los últimos románticos da, baina Laudio gabe



AITOR ASPURU SAEZ

Kazetaria

Zinemaldian aurkeztu dute Txani Rodriguez idazlearen eleberrian oinarritutako filma. Irakurlearen korapiloa ahalik eta lasterren askatzeko: Merezi du zinemara joatea? Erantzun laburra honakoa da: bai, dudarik gabe.

Donostiako Zinemaldiak *Azken erromantikoak* filma eskaini du, bai jaialdi ofizialean, zein Bilbon egindako proiektzioan eta horri esker Txani Rodriguez audioarraren eleberri goratuaren moldaketa ikusteko aukera egon da. Hortaz, hasteko, eta lehenengo zalantza argitzearen: bai, filma ondo dago eta sarrera ordaintzeak merezi du.

Hori bai, audioartasun fisikoaren pilula jasotzeko itxaropenarekin joaten direnek kale egingo dute, Laudio bera (bere kaleak edo paisaiak) ez baitira agertzen. Oso laudioarra izan beharra dago pelikulari arrazoi horregatik uko egiteko, baina oharra eginda dago. Gabezia hori, dena den, filmaren moldaketa prozesuaren metafora egokia da.

Izan ere, *Azken erromantikoak* ez da *Los últimos románticos* eleberria eta, egia esanda, ezin zen horrela izan. Nobela barrura begirako bidaiak da eta filmak ezin dira horrela egin, hizkuntza oso bestelakoak direlako. Irudia ez da hitza, eta iradokizuna ez da mugimendua. Alegia, Laudio ez da filman agertzen pelikulak beste herri bat behar zuelako. Hasteko, euskarazko filma delako, nobela ez bezala.

Horrela, David Perez Sañudo eta Marina Pares gidoilariak bide zuzena bilatu dute *Los últimos románticos*-en arima *Azken erromantikoak*-en gorputzean sartzeko: gatazkak txertatzea. Ondorioz, Irunek, protagonistak, liburuan agertzen ez diren tirabirak izango ditu: auzokide batekin, lanean, osasungintza publikoarekin... Eta horiek, aldi berean, aitzakiak izango dira sororitate, elkartasuna, bakardadea, gaixotasuna, heriotza edota galera irudikatzen. Hau da, liburuak aztertzen zituen gai batzuk



Laudion hainbat eszena grabatu zituzten arren, herriak ez du ia presentziarik pelikulan. Aiaraldea.eus

eta baita gehitutako baten bat gehiago ere.

Miren Gaztañagaren papera

Hori guztia azalduta, Miren Gaztañaga dugu ideia eta iradokizun matazen gaztelu guztia tinko mantentzeko zutabea. Laudio ikusi gabe geratuko direnak kontsolatu daitezke jakinda Arakaldon bizi dela antzezlea.

Gaztañagak pantaila betetzen du adierazpen ekonomia handiarekin. Harridura, deserosotasuna, samina edota une komikoak sortzen ditu aurpegia ia aldatu gabe. Hori

gutxi balitz, zailena dena lortzen du maiz: gehiago transmititzea keinua mantenduta, hitz eginda baino. Izan ere, gidoilariari leporatu ahal zaien zerbait da elkarrizketa gutxi batzuk (protagonistak Renfeko langilearekin duena, bereziki) literarioegiak direla batzuetan eta horrek disonantzia puntu bat sortzen duela filmak duen tonu errealistarekin.

Dena den, Gaztañagak bere gaitasunak erakusteko papera izan du hemen eta ez du aukera galdu. Primeran betetzen du etengabe lekuz kanpo dagoen emakume

baten tokia, eta maiz ekartzen du burura ezagutzen duzun horrelako pertsonaren bat. Bere eskutik joango da ikuslea filmaren zirrikuetatik, apurka-apurka jakiteko zergatik egiten zaion horren arrotza mundua, non dagoen aingurata bere bihotza eta zerk eragin dion egoera hori, baita nola atera daitekeen ere.

Gaztañagarena ez ezik, antzezle guztien lana ere azpimarragarria da eta guztien ekarpena dago ondo neurtua. Eskertzekoa da, gainera, adin anitzeko jendea agertzea, Edurne Azkarate bezalako aurpe-

gi gaztea, zein Maica Barroso edota Itziar Aizpuru beterranoak.

Laudioarrentzako jokoak

Estatubatuarrek *easter egg* deitzen diete film edo telesaietan ezkutatuta dauden erreferentziei eta hemen badaude pare bat, gutxienez. Izan ere, arreta handia jarrita, laudioar bat ikusiko duzue kameoa egiten eta Txani Rodriguez bera, nolabait, pelikulan dago. Non dagoen jakiteko, pista bakarra emango dizuet: "zilantro" hitza. Hala ere, ez da erraza izango topatzea. Ondo pasa estreinaldian!

kultura

Will Smithekin dantzatu eta gero, izarrak dira muga Saydi Lubanzadiorentzat

Jokaldi arriskutsua egin eta gero, Lola Indigo taldea utzita, Saydi Lubanzadiok Will Smithen koreografoaren deia jaso zuen eta bere ausardiak saria izan zuen. Esperientzia izugarria izan ondoren, Estatu Batuetara salto egin nahi du laudioarrak.

Testua

Aitor Aspuru Saez

Saydi Lubanzadiok jarraitzen du markak apurtzen eta azkena mundiala izan da, Will Smithekin dantzatu baitu Santiago Bernabeun, Rock in Rion (Brasil) eta Bakun (Azerbaian). Dena den, abentura hori, herioen ibilbide askotan bezala, erabaki zailaren eskutik heldu zen: Lola Indigo taldea utzea. “Sei urteren ostean, sentitzen nuen nire burua mugatzen ari nintzela eta salto egitea pentsatu nuen. Erabaki zaila zen, beldurra eta bertigoa sentitu nituen, azken finean, segurtasunari uko egin nion”.

Handik gutxira, Nati Pelusoren koreografoa berarekin jarri zen harremanetan. Askok gogoratuko dutenez, musika latindarraren ikono horrekin eta Jon Kortajarenarekin egin zuen lan Lubanzadiok duela pare bat urte bideklip batean eta dantza diseinatu zuenaren buruan zegoen oraindik. “Galdetu zidan ealan egiteko tartea nuen eta nik esan nion baietz, nahiko libre nengoela Lola Indigo utzi ondoren. Ez zidan zehaztu gauza handirik, baina aipatu zidan nazioarteko artista batekin izango zela. Nire materialari oniritzia eman eta gero, adierazi zidan proiektuaren barruan nengoela, baina zehaztu gabe artista izena. Azkenean, entseguak hasi baino hamabost egun lehenago, iragarri zidan Will Smithekin dantzatuko nuela”.



Saydi Lubanzadio Will Smithen eskuman dantzatzen, Santiago Bernabeun eskainitako emanaldian. Ibai Llanos

Albiste izugarria izan zen laudioarrarentzat, baita berarekin zeuden beste dantzariarentzat ere: “Guztiok hazi gara *El príncipe de Bell Air* ikusten!”.

Berri jaso bezain pronto, bere amari esan zion, baina ezin izan zion jende askori esan. Izan ere, sekretua zen Will Smithek Ibai Llanosen *La velada del año* ikuskizunean parte hartuko zuela. Horrez gain, munduko izarra izanik, neurri ugari hartzen ditu abesle eta antzezleak. “Kon-

fidentzialtasun kontratu mordo sinatu behar izan ditut, hortaz, ezin dut ezer esan berari buruz, baina ziurtatu ahal dut oso profesionala, atsegina eta barregarria dela”, aitortu du Lubanzadiok.

Ametsa egi bilakatu

Saydi Lubanzadio ez da berria dantzaren negozioan. Sei urtez hamaika oholtza zapaldu eta astindu ditu Lola Indigorekin, besteak beste, baina Will Smithen


Dantzari laudioarrak Lola Indigo taldea utzi behar izan du ortzimuga berriak erdiesteko

eskutik jauzi nabarmena egin du: “Inoiz ez nuen estadio erraldoi batean dantzatu eta Santiago Bernabeun egitea izugarria izan zen. Gainera, Will Smithek bi abesti berri baino ez ditu argitaratu. Ondorioz, bere kanta zahar eta ospetsuak eraman zituen. Abesti puskarak dira. Nire anaia Taylor etorri zen eta ikusi nuen nire aurrean etengabe dantzatzen eta saltoka”.

Bizipenari berari erreparatuta, erabat hunkigarria izan zen

2018

Suitza eta Parisen trebatu eta Laudio Wellness eskolan eta Kaizen gimnasioan lan egin eta gero, Lubanzadiok ospea hartu zuen ‘Fama, a bailar’ telebista saioan izandako parte hartzeagatik.



Lola Indigo talde ospetsuan sartu zen dantzari laudioarra, eta kontzertu jendetsuetan parte hartzeari ekin zion modu horretan.



Lubanzadiorentzat: “Dantzazten ari nintzen bitartean, begiratzen nuen Will Smith eta pentsatzen nuen: ‘Hau amets bat da, esnatuko naiz’. Nekez eutsi nien malkoei. Sinestezina eta kristonakoa izan da”.

Gainera, uztaileko ametsa irailera arte luzatu zen, Brasilen (Rock in Rio jaialdi entzute-tsuan) eta Azerbaiango hiriburuan (Baku) ere eskaini baitziztuzten emanaldiak.

Esperientzia berria

Salto meteorikoa egin ostean, Saydik egun batzuk hartu ditu Laudion lurra hartzeko bere familiarekin eta berriro Madrilera itzuli da erronka berrien bila. Will Smithekin izandako eskarmentuak, edonola ere, balio izan dio xede berria ezartzeko bere buruari. “Espainiako estatuan ohituta gaude arreta handirik ez jasotzera. Musikaren munduan ulertzen dute dantza egiten badugu, gehienbat, zaletasun sutu hori dugulako dela. Estatu-

Will Smithekin lan egin ondoren, Saydi Lubanzadiok badaki prest dagoela munduko proiektzioa duten artistekin aritzeko

batuarrek, ordea, izugarri zaindu gaituzte eta artista gisa tratatu, hau da, behar den moduko arreta eskaini digute dantzari. Dantzakide guztioi ezustean harapatu gaitu horrek eta amerikarren lan eredu ezagutzeko balio izan dit horrek guztiak. Oso gogoko izan dut”.

Gauzak horrela, Will Smithekin lan egin ondoren, Saydi Lubanzadiok badaki prest dagoela munduko proiektzioa duten artistekin aritzeko. “Dantzari gehienek nahi dute Estatu Batuetako artistekin lan egin, eta baita nik ere”, iruzkindu du. Audioarrak uste du jauzi hori egiteko ordua heldu zaiola eta, Lola Indigo bezalako proiektu arrakastatsua utzita, itxaropena eman dio berriki izandako esperientziak.

Momentuz, Madrilera itzuli da lanera eta jarraituko du bere ametsak betetzeko borrokan. Horieta asko errealitate bilakatu dira jadanik; hortaz, zein izango da hurrengoa?



Ezkerrean, Lubanzadio Nathy Pelusorekin. Eskuman goian, dantzari audioarra bere anaia Thaylorrekin Santiago Bernabeuko kontzertuan. Eskuman behean, Lubanzadio Lola Indigo taldeko beste kideekin.

2020

Goya sarien galan dantzatu zuen Lubanzadiok, baina ez Lola Indigo taldearekin. Castinga egin zuen bertan parte hartzeko eta modu horretan hautatu zuten.

2022

Nathy Peluso eta Jon Kortajarenarekin ‘Estás buenísimo’ bideoklipean parte hartu zuen dantzari gazteak.



2023

Eurovision lehiaketan parte hartzeko atarian geratu zen Lubanzadio Vicco abeslariarekin, Benidorm Festean.

kultura

Sormen bekak Martz, Matx eta Xabi Basterra, Goizane Rodriguez eta Garazi Egigurenentzat

1.000 euroko babes ekonomikoa ematen die Aiaraldea Kooperatiba elkarteko kultura ildoak hautatutako proiektuei. Bi eskualdekoak dira eta beste biak Euskal Herriko beste txoko batzuetakoak.

Testua
Aitor Aspuru Saez

Aiaraldea Ekintzen Faktoriak jakinarazi du Arte Arnasa sormenerako beken onuradunak Martz, Matx eta Xabi Basterra, Goizane Rodriguez eta Garazi Egiguren sortzaileak izango direla. Guztira, 4.000 euroko ekarpena egiten die egitasmoei, 1.000 euro bakoitzari, Eusko Jaurlaritzaren babesletzari esker. Urtarrilaren 18an guztien parte hartzearekin jaialdia egingo dute.

Aurtengo erabakia, berriro ere, zaila izan da eta epaimahaietan eztabaida mamitsua sortu da, arte proposamen antzak eta kalitatezkoak heldu baitira deialdira. Eskualdetasunaren ardatza mantentzearen, Goizane Rodriguez alde batetik eta Matx Atxa eta Xabi Basterra bestetik hautatu dituzte.

Rodriguezek *Ermualde. Begirada eta kontzeptu artistiko berriak* lan bisuala prestatzen ari da. Eskulturaren bidez, Ermualdeko aztarnategi arkeologikoaren ondarea berrinterpretatu nahi du.

Matx eta Xabi Basterra musikari audioarrak, aldiz, *Des(ez)berdin* diskoa egiten ari dira. Lau abestiko proiektua da eta horren bidez erakutsi nahi dute, zenbait gai jorratuta, nahiz eta 20 urteko adin tartea egon euren artean, benetan ez direla horren ezberdinak.

Zornotzako Martz artista plastikoak ere beka eskuratu du *Koloreko pertsona* proiektuari esker. Martzek margoketa prozesua landuko du bekarerkin, jadanik heren bat garatu du eta laster jarraitzeko aukera izango du.

Bere ikuspegi nagusia arraza-identitatearen, kultura-hegemoniaren eta bestearen pertzepzioaren arteko tentsioak aztertzea da. Proiektua pandemiaren garaian hasi zen sortzen, go-goeta batzuk oinarri hartuta,

arraza-diskurtsoek, AEBetako kultura-hegemoniaren eraginez, nola moldatzen duten gure aniztasunaren eta bazterketaren ulermena.

Proiektu honek teknika pikturiko esperimentalak eta material berritzaileak erabiltzen ditu, gorputzaren, kolorearen eta ikusezintasunaren arteko erlazioa aztertzeko. Giza eskalagoga ekartzen duten formatuen bidez, lanak arrazializatutako pertsonen ikusizko irudikapenak agerian jartzea eta kultura-narratiba nagusiak zalanztan jartzea du helburu.

Azkenik, Garazi Egigurenek jasoko du beka. Egigurenek, Komorebi produkzioak, kale ikusizuna antzokirako egokitzapena landuko du bekarerkin.

Dolu prozesu batetik sortu du *Argilunak* proiektua. Galera batek eragindako krisi existentzialaren terapia izaten hasi eta erakitako bizitza eredua kuestionatzeko adierazpen bidea bilakatu da. Alabaina, bizipen pertsonal den hau, unibertsalizatze ariketa izan nahi du.

Dantza eta ikusentzunezkoak uztartuz, bizitzaren izaera dualak sinbolizatzen dituen tentsio globalen inguruko diziplinarteko errepresentazioa garatuko da. Bizitzan aurki ditzakegun askotariko mugezko hausnarketa sakona du oinarri: muga fisikoak, sozialak, linguistikoak zein kulturalak. Muturren arteko konplexutasunari gorazarre egin nahi zaio, barneratuta eta sinestuta ditugun mugak zalanztan jarri, lausotu eta mugez haratagoko aukereilekua emateko.

Sormen egonaldiak

Horrez gain, Sormen Egonaldien deialdia ere ebatzi du Kultur Faktoriak. Urrian zein azaroan beste lau sortzaile ibiliko dira, bakoitza aste betez, Faktorian murgilduta bere lanean.

Ainara Bentok *Zori-ona* proiektua landuko du urriaren 3tik 10era. Proiektu hau, gatibu-



Sormen bekak eskuratu dituzte lau sortzaileak. Kultur Faktoria

tasun-sentsazio propioen arrastoetatik dantza lan garaikide bat sortzeko interesetik loratu da.

Aitziber Duarte, aldiz, *Naturak eskainitakoa* proiektua garatzen ibiliko da Faktorian urriaren 30tik azaroaren 7ra. Arroka desberdinetan inspiratutako proiektua da, zeramika eskultorikora hurbilduz, prozesuan eta gozamenean oinarrituta. Bere helburuen artean daude sorkuntza prozesuari balioa ematea eta Faktoriako espazio argitsu batean plazerez sortzea. Saio irekia eskainiko du azaroaren 7an, arratsaldeko 19:30ean. Sarrera libre eta doakoa izango da.

Idoia Tapia, bestetik, *Alter Nation* konferentzia performatibo

Sormen egonaldietan, aldiz, Aitziber Duarte, Idoia Tapia, Ainara Bento eta Eneritz Furyak arituko dira

sortzen ibiliko da azaroaren 7tik 14ra. Alter Nation Identitatearen Nahasmendu Disoziatiboaren (IND) inguruko konferentzia performatiboa da. Hitzaldi honetan, ezjakintasunetik psikopatologia honen funtzionamendua joku eszenikoaren bidez ulertzen saiatzen da.

Bukatzeke, Eneritz Furyak sortzaileak, *Paisaiak VI* proiektu potentea Aiaraldean bukatzea erabaki du, eta azaroaren 14tik 23ra burutuko du Sormen Egonaldia.

Egonaldiei amaiera emateko, Arte Eman festa jaialdi esperimentalak egingo da azaroaren 23an. Bertan ikusi ahalko dira garatutako lanen emaitzak.

Sitgesen estreinatuko dute Kexaan grabatutako *Historias de Halloween* filma

Testua
Txabi Alvarado Bañares

Sitgeseko Fantasiatzko Zinemaren Nazioarteko Jaialdian estreinatuko dute *Historias de Halloween* filma. Urte hasieran grabatu zuten ikus-entzunezkoa Arabako hainbat tokitan, eta Kexaako monumentu multzoa erabili zuten eszenatoki moduan, besteak beste. Orain, Kataluniako jaialdiaren Panorama sailean proiektatuko dute emaitza, urriaren 11n eta 12an.

Ikusgai dago jadanik filmaren trailerra. Bertan agertzen dira Macarena Gomez, Christian Thomas eta Javier Botet aktoreak, besteak beste. Horrez gain, filmak beldurra, fantasia eta umorea uztartzen dituela ikus daiteke, arimen gauan girotutako hainbat istorio uztartuta. Kiko Pradaren fikziozko lehen filma luzea da *Historias de Halloween*. Aurretik beste bi lan zuzen-



Filmaren kartela. Atlantika Films

du ditu zinemagileak, baina dokumentalgintzaren esparruan.

Ez da asko itxaron beharko filma pantaila handian ikusteko, urriaren 31n iritsiko baita zinema areto komertzialetara, arimen gauan, hain zuzen.

Javi Gilek eta bere taldeak bigarren postua eskuratu dute Bilboko Hilerriko I. Zinema Jaialdian

Testua
Aitor Aspuru Saez

Javi Gil zuzendariak eta bere taldeak (Ruben Ladrón de Gebarak, Borja Pelaezek, Estibaliz Flechak eta Esti Molerok) Bilboko Hilerriko Film Laburren I. edizioko biga-

rren saria eskuratu dute. Guztira hamabost taldek parte hartu zuten lehiaketan eta sei egun izan zituzten pelikulak ekoizteko. Irailaren 20tik 23ra bitartean egin zituzten grabaketaketa 23tik 26ra, aldiz, muntaketa. 500 euroko saria eskuratu zuten laudioarrek.

Delikan eta Tertangan grabatuko dute *Sacamantecas* filma eta figuranteen bila ari dira

Testua
Aitor Aspuru Saez

Laster hasiko dute *Sacamantecas* pelikularen grabaketa eta azken prestaketa lanetan ari dira. Goitizen bereko XIX. mendeko hiltzailearen (antza, sei emakume erail zituen) bizitza kontatuko du filmak eta grabaketa egunakizango ditu Aiaraldean; Tertangan eta Delikan, hain zuzen. Azaroaren 6an eta 7an arituko dira bi toki horietan.

Kevin Iglesias ekoizle amurriarra da proiektuaren atzean dagoen sustatzaileetako bat eta une hauetan figuranteen bila dabil. Casting



David P. Sañudo Laudion, *Azken erromantikoak* filmaren grabaketan. Aiaraldea.eus

presentzialakegin dituzte, baina Internet bidez ere parte har tu daiteke hautaketa prozesuan. Hautatuek lan hitzarmenaren arabera ordainsaria jasoko dute.

Produktzio handi horren zuzenda-

ria David P. Sañudo da (*Azken erromantikoak* filmaren arduradun bera) eta, besteak beste, Karlistaldietako batailak agertuko dira ikus-entzunezkoan. Horregatik, hain zuzen, beharko dute figurante mordoa.

ZER DA?

- Haur eta nerabeen hazkuntzaz hitz egiteko espazio bat
- Beste guraso batzuekin esperientziak konpartitzeko gunea
- Hazkuntzaz hausnartzeko gune bat
- Gurasoen artean bildu eta lasaitasunez aritzeko espazioa

Familjen kabia

Erditzean eta gero, zer gertatzen da zoru pelbikoarekin?



EGOKI ZENTROKO MIREN URQUIJOREKIN

URRIAK 15 18:00

Nugikorra noiz eta zelan?



ALTXA BURUA ELKARTEKO KIDEEKIN

AZAROAK 5 18:00



EMOKI ELKARTEKO JONE ZALDUEGIREKIN

Pornografia eta gune digitalak

ABENDUAK 17 18:00



Edoskitzea

OLATZ RAMIREZ EDOZKITZE AHOLKULARIAREKIN

AZAROAK 19 18:00

— Saio bakoitzean gaian aritua den norbait etorriko da, zalantzak argitzeko eta eztabaidetan sakondu ahal izateko

— Eskatzen duenarentzako zaintza zerbitzua egongo da

— Doakoa da baina izen ematea egongo da

APUNTATZEKO ETA INFORMAZIO GEHIAGO
www.faktoria.eus edo 722 22 75 32 telefonora deituta





Psikologia eta EMDR

Nekane Oribe Moreno
Kol.: AA01303



neibe
psicología

@neibepsicologia

613 23 18 04

kultura



“XXI. mendeko punkiak gara”

ANDOITZ ORTIZEK (LAUDIO), AITOR RODRIGUEZEK (LAUDIO), JORGE IÑIGUEZEK (LAUDIO) ETA ARGIDER MENTXAKAK (BILBO) OSATZEN DUTE **WALTER EGO** TALDEA. BERTSIOAK JOTZEN HASI ZIREN, GUTXINAKA ARI DIRA ABESTI PROPIOAK EGITEN, ETA DISKA BAT ATERATZEA DUTE HELBURU.



Testua eta argazkia
Almar Gutierrez Bidarte

Nola sortu zenuten Walter Ego taldea?

Zer izan zen, 30 urtetako krisiagaitik? (barreak)

Beste musika talde batzuetatik gatoz denak. Talde horietan jotzeari utzi genion, baina musika egiten jarraitzeko beharra genuen oraindik. Behar horretatik abiatuta ekin genion elkartzeari.

Hasieran astean behin geratzea zen gure asmoa; ez musika talde bat osatzeko intentzioz baizik eta eguneroko arazoetatik aldentzeko ihesbide gisa. Bakoitzak jo nahi zuen bertsio proposamena ekartzen zuen estudiora eta horrekin entretenitzen ginen.

Halako batean hogeitaz bertsioz osatutako abesti zerrenda bat genuen esku artean, eta jendaurrean jotzen hasia erabaki genuen.

Bertsioekin hasi zineten, eta orain abesti propioak dituzue.

Bai. Pandemia eta gero hasi ginen abesti propioak egiten. Ezin ginenez batu, abestiak egiten hasi ginen, eta hor erabaki genuen bertsioak alde batera uztea.

Ez dakigu taldearen genero musikala definitzen, hainbat generoren nahasketa delako: rock-and-rolla, punka,

metala... Funtsean punkiak gara, baina genero musikala nahasketa bat da... XXI. mendeko punkiak gara.

Zeri abesten diozue?

Kantu batzuk goizegi jaikitzearen aurkakoak dira, lan egin nahi dutenen aurkakoak... goizean ziztatzan zaituzten gauza horiek. Abestiek asko hitz egiten dute gutaz. Azken abestiak pixka bat sakonagoak dira, eta geure burua txikitzen dugun moduz hitz egiten dute, bizitzeko orduan geure buruari jartzen dizkiogun trabez. Entzuten badituzue, ulertuko duzue.

Nondik dator "Walter Ego" taldearen izena?

Alter ego-tik. Dibertigarria iruditu zitzaigun aldarte bati izen bat ematea. Eszenatokira igotzean jada ez zara gutunak postontzitik etxera igotzea ahaztu zaiona, batera jotzen ari dena baizik.

Zuzenekoekin hasi zarete, zenbat kontzertu eman dituzue dagoeneko?

Gure abesti propioekin hiru daramatzagu. Lehen, bertsioak ziren gehienak, eta gure abesti bat edo bi sartzen genituen; orain, berriz, gure kantuak jotzen ditugu, eta bertsioen bat sartzen dugu. Pixkanaka bertsioak kentzen ari gara, abesti propioak sartu ahala. Ordubetea 7

abesti propio eta 4 bertsio egiten ditugu. Oraindik abesti asko daude tintontzian, bukatzeaz daudenak. Espero dugu zuzeneko bakoitzean gure abesti gehiago izatea bertsioak baino.

Zer moduz zuzenekoak zuen abestiekkin? Zein da publikoaren erantzuna?

Asko harritu gaitu, jendea gustatzen zaio. Ezin zara iritsi izugarriko arrakasta izango duzula pentsatuz, eta gainera gustu musikalak oso desberdinak dira. Zerbait desberdina egiten saiatzen bazara, normalean gehiago kostatzen da. Harritu egin gaitu pixkanaka izan duen onarpenak, eta jendea pozik dago.

Kontzertu gutxi daramagu eta ahal duguna egiten dugu, baina oraindik aritzea falta zaigu. Espero dugu hemendik denbora batera sasoi hobean egotea.

Zer asmo duzue hemendik epe laburrera?

Egurra ematen jarraitu. Ez dugu ezer handirik nahi, gustatzen zaigulako jotzen dugu, baina disko batek ilusio handia egingo liguke guztioi, materiala ona da. Pausoz pauso, hurrengo urratsa izango da ia bukatuta dauden abestiak amaitzea, ondo grabatuta uztea eta diskoa kalera ateratzea. Eta hortik ondo pasatzen jarraitzea, horrela hasi baizen Walter Ego, ihesbide gisa.

argazki erreportajea

Arrakasta izaten ari dira Aiaraldeko udazkeneko kirol probak. Urduña Hiria Herri Krosak 800 korrikalari baino gehiago batu zituen irailaren 29an. Orozko Harana ibilaldian, aldiz, 600 mendizale elkartu ziren orotara.

Kirol proba ugarirekin hasi da udazkena

URDUÑA HIRIA HERRI KROSA

Arrakastatsua izan zen Urduña Hiria Herri Krosaren XVIII. edizioa. Aurten modalitate berri bat antolatu dute, 6 kilometrokoa. Ondorioz, iaz baino jende gehiago batu zen Foru plazan, eta 800 parte hartzaileen langa gainditu zuen ekimenak.



OROZKO HARANA MARTXA

Itxinape Mendi Taldeak Orozko Harana martxaren XXXIV. edizioa egin zuen urriaren 6an eta 600 lagunek eman zuten izena. Batzuk ibiltzen egin zuten proba, baina askok nahiago izan zuten korrika egitea.

Argazkiak: Itxinape Mendi Taldea

kirola

“Egun onak, txarrak, oso onak eta oso txarrak izan ditut, baina pilotaria izan naiz beste ezerren gainetik”

KOLDO IRIARTEK (Amurrio, 1983) AMAITUTZAT EMAN DU BERE IBILBIDEA PILOTARI GISA. IRAGAN IRAILAREN 28AN JOKATU ZUEN AZKEN PARTIDA, AMURRIOKO FRONTOIAN.



Testua **Aitor Aspuru Saez**
Argazkiak **Aimar Gutierrez Bidarte**

Agur esango diozu pilotari jokalarari gisa, zer sentitzen duzu?

Pena handia sentitu dut, baina, bestalde, 41 urte ditut eta uste dut ueña heldu dela.

Sekulako zaletasuna izan diozu kirolari beti, orain zer egingo duzu betetzen zenituen ordu horiekin guztiekin?

Bai, egia esan, astero, asteartetan hasten nintzen pentsatzen non jokatu behar nuen, urrun edo gertu zegoen, norekin joan... Hemendik aurrera uste dut familiarekin plan gehiago egingo ditudala. Izugarri eutsi diote orain arte, eta merezi dute nik asteburutan egotea eurekin, asteburu pasa hortik.

Nola laburtuko zenuke zure ibilbidea txikitatik gaur egunera arte?

Nire ibilbideari dagokionez, pozik joan naiz frontoietatik. Bost urterekin hasi nintzen jokatzeko Amurrioko frontoian. Nire aita ere pilotaria izan zen eta zaletasun handia izan dudanez, horri eutsi eta urte luzez ibili naiz frontoietan.

Lehen beste modu batean jokatzeko zen. Pilotakada

ugariko partidak zeuden eta ni aurrelaria nintzen. Ondo egiten nuen erasoan eta defentsa ona nuen.

Afizionatu mailan ondo aritu nintzen, enpresa batek esan zidan eurentzat jokatzeko eta zazpi edo zortzi urtez ibili nintzen eurekin. Oso ondo egon zen. Herri pilo ezagutu nituen eta oso ondo pasa nuen. Kristona gozatu nuen, jende asko ezagutu nuen.

Afizionatura itzuli nintzen eta partida onak zein txarrak jokatu ditut eta jendea ezagutzen jarraitu dut. Oso pozik nago egindakoarekin.

Nola definituko zenuke zure burua jokalarari gisa?

Uste dut pilotaria naizela beste ezerren gainetik. Buena asko egiten duen pilotaria. Egun onak, txarrak, oso onak eta oso txarrak izandit, baina edozein gauzaren gainetik pilotaria izan naiz eta nahiz eta galdu, behartu ditut aurkariak ondo jokatzera.

Pilotari hitza esaten dugunean, jokalarari bakarrik datorkigu burura, baina zuk bikote ugari izan dituzu, zeintzuk etortzen zaizkizu gogora?

Bikote mordoia etortzen zait burura. Txikitik gogoratzen dut Zigor Velasco, Amurriokoa eta nire adinekoko. Irabazi genituen txapelketa pilo, Arabakoa, adibidez.

Handik aurrera izan nituen ni baino nagusiagoak zirenak. Orain oroitzen dut Arkaitz Ereño, Zaratamokoa. Urte

oso onak egin genituen. Horren ondoren Mikel Goñi, Jaio, Gonzalo Velasco, Rober Uriarte... Horiekin askotan ibili nintzen jokatzeko.

Herriko klubekoak ezin ahaztu: Mikel Herrero, Aitor Landaluze, Eneko Gonzalez, Aitzol Dorronsoro...

Partida ugari eta txapelketa mordoia jokatu dituzu, zein da zure palmarsa eta zein une (irabazi edo ez), dituzu biziki bihotzean?

Txapelketa asko jokatu ditut eta ezberdinak, baina herri arteko beti eman diet garrantzi handia. Orain datorrik ere Mikel Herreroekin Baños de Rio Tobian Errioxan, 2019. urtean, irabazitakoa. Duela bost urte inork ez zuen euro bat ematen gure garaipenaren alde eta finalerdietan zein finalean emaitzari buelta eman behar izan genion. Jende pilo joan zenfrontoira, zaletasun handia baitago. Txapela, trofeoa, ardoa, txorizoa... Denetarik eman ziguten.

Euskal Ligako txapelketa ere garrantzitsua da pilotariontzat eta aurrean irabazi dut Los Fueros pilotalekuan Andra Mari Zuriko txapelketa Gasteizko jaietan. Hor jokatzeko kriston ilusioa egiten dit, jende asko baitoa eta frontoia oso gogoko dut.

Pilotak une paregabeak eman dizkizu, baina lesio larria ere izan duzu, nolakoa izan zen esperientzia hori?

Lesio larri bakarra izan dut eta urtebete egon nintzen jokatu gabe. Medikuek ikusi zuten eta esan zidaten bizitza arrunta izateko konponduko zidatela, baina ez pilotan jokatzeko. Batetik bestera ibili nintzen. Azkenean, Barzelonara jo nuen Moto GPko mediku batekin. Eskumuturrak askotan tratatu zituen eta denetarik ikusi zuen, eta berak aitortu zidan pilotara itzultzeko aukerak nituela.

Ondo pentsatu nuen, hara joan nintzen, ebakuntza egin zuten eta sei edo zazpi hilabeterekin hasi nintzen pilota goxuaekin eta lau hilabetera jokatzeko ari nintzen.

Burua pilotatik kanpo oso izan nuen urtebetez eta gero itzultzea ikaragarria izan zen.

Iker Larrazabal oso gertutik ezagutzen duzu eta ez da eskualdean dagoen pilotari profesional bakarra. Nola ikusten duzu kirolaren egoera, nolako bilakaera izan du zu hasi zinenetik? Nola bizi izan duzu, adibidez, Ikerren igoera?

Oso pozik gaude herrian Iker hor goian ikusteagatik eta hemen jokatzeko duenean beteko dugu frontoia, herriko laguntza izango du.

Laudion Arkaitz (Eskuza) dago eta beso luzeak eta jokatzeko gogoia du. Gora egingo du.

Nik uste dut lehen ordu gehiago egiten genituela frontoian, baina Amurrion ikusten dugu umeak beste aire batekin dabilzala.



kirola

ERRUGBIA

Errugbian lagunartean jokatzeko aukera, Aiaraldeko Astoak taldearen eskutik



Herritar ugari batu dira taldera. Aiaraldeko Astoak

Testua
Aitor Aspuru Saez

Laudio eta Amurrioko hainbat errugbi jokalarik eta jokalaririk ohiak Aiaraldeko Astoak taldea sortu dute kirol horri bultzada emateko eskualdean. Egitasmoak ez du anitzio handirik eta 16 urtetik gorako edozeini bideratuta dago. "Emakumezkoak edo gizonezkoak gonbidatuta daude eta sasoi fisikoak ez du garrantzirik. Izan ere, errugbia kirol anitza da eta postu ezberdinak daude, norberak bilatu dezake non dagoen gustura. Hau ikasketo eta gozatzeko espazioa izango da", azaldu du Beñat Bilbao Larrorik, Txapis-ek.

Izan ere, hasierako helburua da aukera ematea edonori errugbian buru-belarri sartzeko. Horretara-

ko entrenamenduak egiten hasi dira astero, 19:00etan Gardeako kirol gunean. Audioko Udalak eta Nerbioi Errugbi Taldearen babesa daukate antolatzaileek eta, finean, xedea da kirola bizirik mantentzea. "Ekimenak indarra hartzen badu, pentsatuko dugu lagunarteko partidak antolatzea edo bestelako planak", argitu du Txapisek.

Aiaraldeko Astoek azpimarratu dute errugbiaren balioetako bat badela errespetua eta hori irakasteko tresna oso egokia dela kirola.

Nabarmendu dutenez, nahi duen orobertaratu daiteke edozein ostiraletan kirola probatzera. Hori bai, eskatu dute takorik gabeko oinetakoak erabiltzea eta arropa eroso janztea. Jokatu ostean, dutxa hartzeko parada egongo da.

FUTBOLA

Thaylor Lubanzadio, Espainiako Inklusio Ministerioko enbaxadorea arrazismoaren kontra

Testua
Aitor Aspuru Saez

Thaylor Lubanzadiok uda bizia izan du arrazismoaren kontra. Izan ere, Europar Batasuneko Batzordeko SCORE (Sporting Cities Opposing Racism in Europe) proiektuak proposatu zion bere enbaxadorea izatea arrazismoari eta kirolari buruz aritzeko. "Tamalez, duela urte pilo jokatzan dut futboleko profesionalak eta egokitu zait erasoak pairatzea eta salatzea. Hori dela eta, interesa zuten nire iritzia eta ikuspegia ezagutzeko", azaldu dio Thaylor Lubanzadiok Aiaraldea Komunikabideari.

SCOREren kanpaina arrakastatsua izan zen, Lubanzadioren iritziz: "Maiatzean hasi eta ekainean amaitu genuen. Hitzaldi ugari eskaini genituen eta kirolari asko batu ziren".

Behin hori bukatuta, Espainiako Inklusio Ministerioak ere bultzatu zuen jarduerak eta ekitaldi gehiagotan hitza hartu zuen audioarrak. Horietako ekintza batek LaLigako egoitzara eramanez azken asteetan eta Elma Saiz ministroarekin, Javier Tebas LaLigako presidentearrekin, Patricia Garcia Rodriguez errugbi jokalaririk ohiarekin eta Cindy Lima saskibaloi jo-



Thaylor Lubanzadio LaLigako egoitzan. LaLiga

kalari ohiarekin eztabaidatu zuen arrazismoa salatzeke.

Dena den, Lubanzadioren asmoa ez da soilik errealitate hori arbuaitzea. Bere asmoa da arrazismoa kirolaren barruan daudenekin borrokatzea eta ulertaraztea ez dela norbanakoen arazoa: "Egiturazko arazoa da eta goitik sustatzen da. Ez da pertsona batek duen arazoa. Hori ez badugu barneratzen, nekez lortuko ditugu aldaketak".

SCOREren egitasmoa bukatu bada ere, audioarrak ez dio hitzaldietan eta mahainguruetan parte hartzeari uko egin: "Orain Maltaan ari naizenez jokatzan, maiz on-line egiten ditut nire ekarpenak. Uste dut jendearentzat interesgarria delarik daukadan esperientzia eta ikuspegia. Horregatik, etorkizunera begira ere ditut proiektuak. LaLigako egoitzan ezagututako jendearekin elkarlanean ari naiz ahal dudanean".

KICKBOXING

Mouad Jalkhak irabazi du Espainiako ISKA Txapelketa Chock Dee klubarekin

Testua
Aitor Aspuru Saez

Chock Dee borroka kirol kluba zorionekoa da, Mouad Jalkha 17 urteko kirolariak garaipena lortu baitzuen asteburuan Madrilen. Urriaren 4an, 5ean eta 6an jokatu zen ISKA kickboxing txapelketa eta amurriarra bere lehia guztietan irabazteko izan zen. Are gehiago, finala KO tekniko amaitu zuen.

Ibai Ruiz klubeko entrenatzaileak gaztea zoriondu du, Chock Deen sartu den azken borrokala-

ria baita, hain zuzen. Ruizen aburuz, gazte belaunaldiak indartsu hasi dira eta, horregatik, Anartz Dominguezek lana ere azpimarratu du.

Anartz Dominguezek borroka

Dominguez final laurdenetan kaleratu zuten, baina ez zuen txarto borrokatu. Ruizen aburuz, detailegatik galdu zuen gazteak: "Erritmoa igotzen joan zen eta bukaeran atzera kontaktaketa egitea lortu zuen, baina ez zen nahikoa izan irabazteko".



Mouad Jalkha, Ibai Ruiz eta Anartz Dominguez Madrilen. Chock Dee

MENDIA

Mendia hizpide Alondegia Xtrem-en

Mendiari buruzko Alondegia Xtrem jardunaldiak egunegoko dituzte datozen egunetan Urduñako Gizarte etxean. Datorren ostiraletan (urriak 11) Everest Invaders dokumentala proiektatu dute, 18:30ean. Hilaren 16an, aldiz, Maria Luisa Goikoetxea urduñarra eta Ezin Ekinez Eginda elkarterako kiadakbertaratuko dira, solasaldia eskaintzeko, ordu berean. Hurrengo egunetan, aldiz, Konfiantza itsua izeneko ikus-entzunezkoarekin emango diote amaiera programari.

herriko plaza

Idatzi zure mezua eta bidali argazkia agurrak@aiaraldea.eus helbidera eta Aiaraldea.eus atarian plazaratuko dugu. Urriaren 23an argitaratuko da hamabostekariaren hurrengo zenbakia.



Untzizu

Zorionak!!!! Untzizu, Aita, Amama eta Amaren partez zeure 10. urtebetetzean!!! Maite zaitugu printzesa.

Familia



**BIDALI
ZURE
ZORION
AGURRA!**

Denborapasak

ERRAZA

			7	3	2	6		
7	6				4			9
	5						4	8
4					8	3		2
		9			3	5		
	7			9				
5						4	7	
	3	2				8	5	
	4		3	5				1

OSO ZAILA

	5			9				
1						6		
			3		8			
		8		4				9
5	1	4						
	3						2	
								4
	8				6			7
7			1	5			6	

DENBORAPASEN SOLUZIOAK Sudoku, hitz-gurutzatu eta hitz gezidunen soluzioak webgunean ikusgai: www.aiaraldea.eus/komunitatea/denborapasak

**QUICK PC
REPAIR**
Informatika argi eta erraz



**ETXEZ
ETXEKO
ZERBITZUA
gainkosturik
gabe**

· Salmenta · Konponketak

· Informatika-ekipamenduen eta STen inguruko prestakuntza ematen dugu negozio eta etxetarako

· Bezeroaren premietara egokitutako fakturen eta tiketen diseinua, eta kudeaketa-programen diseinua

Galdetu PC eta ordenagailu eramangarrien **REMOVE PLAN**ari buruz

Dionisio Aldama 2, AMURRIO · 685 70 19 56 · 945 03 48 12
www.quickpcrepair.es · quickpcrepair@quickpcrepair.es

YANDIOLA
HORTZ KLINIKA LAUDIO

Mediku zentroa RPS: 314/18
Karmen Kalea 13, behea
LAUDIO (Araba)
946 72 31 00
www.yandioladental.com


75 urte zurekin



PADI PROGRAMA



INPLANTEAK



3D ERRADIOGRAFIAK

IRAKURKETA GUNEA

TXIMELETA BELARRIAK

Idazlea: Luisa Aguilar

Marrazkiak: André Neves

Itzultzailea: Fernando Rey

Argitaletxea: Pamiela

Bere belarriak handiak dituen haur baten istorioa kontatzen du. Iseka egiteaz ari da ipuina. Gure gorputza maitatzeaz ere, gure ezaugarriek egiten bait gaituzte ezberdin eta berezi.



PRINTZE TXIKIA

Idazlea: Antoine de Saint-Exupery

Adina: 14 urtetik gora

Itzultzailea: Patxi Zubizarreta

Argitaletxea: Elkar

Ipuina irakurtzea erraza da, baina lantzen dituen gaiak sakonak dira, adiskidetasuna, bizitzaren zentzua, maitasuna... Haurren munduaz aztertu egiten du. Sahara basamortuan, matxuratu zairo hegazkina, bertan ezagutuko du beste mundu batekoa den printze txikia.



JOLAS GUNEA

ARTEKO LANDA

LEKUA: Artziniega (Araba)

AZALPENA: Artziniagako hiribildutik 500 bat metrotara kokatzen da natur gune zoragarri hau. Bertan urte pilo bat dituen arte bat kokatzen da. Baina parajeak baditu bestelako zuhaitza batzuk ere, haritzak, lizarrak, platanok...

Familian gozatzeko toki interesgarria da. Naturaz gozatzeko aukera ematen du, ibilbide txikiak egiteko aukera. Mahaiak, haur parkea, iturriak, suak edo komunak ere baditu lasai egoteko eta jolasteko. Aparkalekua du beraz kotxean joateko aukera dago.



KOKORIKO
HEZKUNTZA FAKTORIA

Jolas librea

Jolasa hurrek egiten duten ekintza soila baino askoz gehiago da. Jolas librea edo autonomoa jaiotzen garenetik hiltzen garen momentu arte gure bide-lagun dugu. Gauza ezberdinak ikasteko erabiltzen dugu, baita emozioak kudeatzeko ere, edo beste pertsonekin sozializatzen ikasteko ere.

Jolas librea da munduaren funtzionamendua ikusteko eta ikasteko haurrek erabiltzen duten metodoa. Horrela formulatzen dituzte hipotesi konplexuak eta praktikara eramaten dituzte. Adibidez, oso ohikoa da haur bat ikustea edukiontzi ezberdinetan trabaseak egiten, edukiontziak betetzen eta husten. Ekintza hau begi bistan oso sinplea iruditu ahal zaigu, baina, haurrek modu horretan bolumen ezberdinak ikasi egiten ditu, material ezberdinen portaera eta ezaugarriak ikasten ditu... Itzal eta argiekin jolasten duenean, optika lantzen ari da, eraiki eta deseraiki egiten duenean fisika lantzen du, agertu eta desagertzera jolasten duenean (bere burua segundoko batzuek tapatu) beldurrak eta emozioak kudeatzen ikasten du...

Helduen partetik jolas hau autonomoa eta ez gidatua izatea da ezinbestekoa. Hau da, jaiotzen direnetik haurrak bakarrik jolasteko espazio egokiak eskaini behar dizkiogu. Eta helduek behatu behar ditugu, presente egon behar gara, jolas horren parte izan gabe. Jolas librea haurrarena izan behar du, bere barrenetik atera behar du jolasteko nahiak eta beharrak.

SOKASALTOA



Sokasaltoan ibiltzeko hiru abesti:


Kaixo lagun
zenbat goxoki jango ditut?
habila naiz eta badakit:
1, 2, 3, 4, 5....

Saltoka saltoka
nabil ni gustora
salto eta salto
bat sartu arte.
Sartu dadila Mikel
eta biak elkarrekin
salto eta salto
bat atera arte.
eman ezazu buelta
eta irten zaitez

Kantauriko itsasoan (soka
sigisaga doa lurretik)
olatuak goraka (soka altxatu
egiten da eta ohiko soka saltoa
hasten da)
itsasontzi bat irten da
olatuen gainean
hemendik hara (soka saltoan
dabiltzala, aldi berean, soka
emaleak bi pauso eskuinera)
handik hona (bi urrats
ezkerrera)
hemendik hara (bi urrats
eskuinera)
eta kanpora!

Handienetik txikienera


Ordenatu ahate hauek handienetik txikienera (1etik 8ra zenbatu, hurrenez hurren).



Margotu


Pareak bai!

Txita hauetarik gehienek bikia dute, batek izan ezik. Eta hirukiak ere badira. Aurkitu hirukiak eta parerik ez duena.



Mezu gordea


Eman irudiño bakoitzari dagokion hizkia eta abesti bitxi bat agertuko zaizu. Beharbada buruz dakizu... Hizki-marrazki alfabetoa erabilgarri izango zaizu horretarako.



HIZKI-MARRAZKI ALFABETOA

A	B	C	D	E	F	G	H	I	J	K	L	M	N	N
O	P	Q	R	S	T	U	V	X	Y	Z	.	,	!	?

SOLUZIOAK



Kontra

Aiaraldetik mundura

Jean-Marc Bilquez



Igone Garaio

JAIOTERRIA
LAUDIO (1981)

BIZILEKUA
PARIS (FRANTZIA)

BIDAIAREN XEDEA

UMEA ZELA LAUDIOTIK ESTATU BATUETARA JOAN ZEN, ETA ORAIN PARISERA JOAN DA BIZITZERA FAMILIAREKIN.



PARIS



DESKRIBAPENA

Frantziako hiriburua da. Herrialdearen iparraldean dago kokatuta hiria. Hiriak berez 2,15 milioi biztanle ditu, baina inguruan 12 milioi pertsona baino gehiago bizi dira. Horregatik, Europar Batasuneko mota horretako gune jendetsuena da.

AZALERA

105,4 kilometro koadro.

BIZTANLEAK

2,14 milioi biztanle.

HIZKUNTZAK

Hainbat hizkuntza hitz egiten dira Frantzian, baina frantsesak soilik du estatus ofiziala.

Argitaratzailea:

Aiaraldea Kooperatiba Elkarte
Tirada: 10.000 ale.
Maiztasuna: Hamabostekaria
Lege gordailua: BI-1230-2013
Posta elektronikoa: egunkaria@aiaraldea.eus agenda@aiaraldea.eus erredakzioa@aiaraldea.eus
Publizitatea: publizitatea@aiaraldea.eus
Tifnoa: 688 62 53 94
Helbidea: Errotari kalea 4-8 pabilloia, Audio. Araba. 01400
Telefonoak: 94 656 85 54/688 62 59 00
Web-gunea: www.aiaraldea.eus
ERREDAKZIO OHARRA: Aiaraldea Aldizkariak ez du bere gain hartzen iritzi artikuluetan, zein egindako elkarrizketetan adierazitakoaren erantzukizuna.

ESKER BEREZIAK BANATZAILA BOLUNTARIOEI:

Sofia Cisneros, Aitziber Alava, Josu Zabala, Genma Corbella, Endika Arribas, Christian Alemany, Gartzen Garaio, Aitor Fernandez, Jon Catalan, Iñaki Larrakoetxea, Jabi Asurmendi, Lander Ria, Xabi Ugalde Alberto Gutierrez, Eunatze Molinuevo, Ekhiñe Etxepeteleku

“Nire seme-alabek ulertu dute gauza berezia dela euskaraz hitz egitea”

Zenbat urterekin joan zinen Laudiotik eta zergatik?

10 urte nituenean Audio utzi nuen nire familiarekin Estatu Batuetara bizitzera joateko, nire aitak garai hartan Ameriketako petrolio konpainia batean lan egiten zuelako eta familiarekin erbesterratu gisa Houstonera joatea eskaini ziotelako.

Zer oroitzapen dituzu Audioko bizitzaz?

Oroitzapen asko ditut Audioko bizitzaz. Gogoan ditut ikastola, lagunak, paseoak eta jaiak... Faltan botatzen dut familia osoa gertu edukitzea, nire aitite eta amamak, osaba-lehengusuak...

Oso txikia zinela joan zinen Houstonera bizitzera, harremana mantendu duzu Laudioekin eta Euskal Herriarekin?

Bai, noski, beti izan dugu zor-tea urtean bitan etxera bueltatu

ahal izateko. Gabonetan bi astez eta ia hiru hilabete udan. Niretzat Euskal Herria beti izan da nire etxea, nire herria, eta oso zaila egiten zitzaidan urtero zutea.

Zure senarra Argentinarra da eta bi seme-alaba dituzue, zergatik erabaki zenuen zure seme-alabei euskara irakastea?

Nire senarra Ale Houstonen ezagutu nuen, eta hasieratik azaldu nion euskalduna nintzela, eta horrek niretzat zuen garrantzia. Bera argentinarra da eta Argentinan ere euskaldun asko daude... beraz, pixkanaka-pixkanaka gure seme-alabengan euskara eta euskal kultura bizirik mantentzearen garrantzia uler-tu zuen.

Zelakoa izan da euskararen transmisioa?

Nire seme-alabei Euskal He-

rritik urrun eta euskaraz ez dakien senar batekin euskara transmititu ahal izatea ez da oso erraza izan, baina nire gurasoen eta nere anaiaren laguntzarekin ere errazagoa izan da. Nire seme-alabek ulertu dute gauza bakarra eta berezia dela euskaraz hitz egitea. Gure hizkuntza sekretua da, eta euskaraz hitz egiten dugunean inork ez gaitu ulertzen, ezta beren aitak ere!! (barreak)

Zer harreman daukate zure seme-alabek Laudioekin eta Euskal Herriarekin?

Nire seme-alabek maite dute Euskal Herria eta Audio. Gabon batzuk pasatzen ditugu bertan eta gutxienez hilabete bat udan ere. Ikerrek 10 urte ditu, kirolzalea da eta udaro Lezamako udalekuek joaten da. Amaiak 6 urte ditu, eta 3 urte daramatza Laudion dagoen Faktoriako udalekura joaten euskara ikasten ja-

rraitzeko eta bere adineko haurrekin gizarteratzeko. Nire familiarekin (osaba, lehengusuak...) egotea gustatzen zaie, etxean bezala sentitzen dira.

Orain Parisera joan zarete bizitzera. Euskara, gaztelera, ingeleza eta orain, frantsesa ere hitz egingo duzue.

Orain nire senarraren lana dela eta Parisera etorri gara bizitzera, beraz denon esku egongo da frantsesa ikastea!

Noizbait Laudiora itzultzea gustatuko litzazuke?

Beti pentsatu izan dut Laudion berriro bizitzeko aukeraz. Ez dut sekula itxaropenik sortu atzerrian hainbeste denbora bizitzen egon eta gero, eta kanpoko norbaitekin ezkondu egonda ere, ez delako hain erraza... baina nork daki etorkizunean zer gertatuko den!

EGUNKARI HAU LAGUNTZEN DUTE:



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA